



22 ERREPORTAJEA

EHZ FESTIBALA berpiztu dute Irisarrin



#2.651 | 2019/07/07 | 3,90 €



**"Etxebizitzaren
problematikaren inguruan
subjektu politiko bat
eratzten ari da"**

28 | LISA VOLLMER



**Glovoko
banatzailearen
amets arteko
zapalkuntza**

32 | EKONOMIA



**"Edozein bizitza
arrunt birbalariza
daiteke idazketaren
bitartez"**

44 | MIREN AGUR MEABE

PAPE NIANG HASIERA BERRI BAT

Mikel Garcia Idiakez

Amut bain nã ku leagala



LIBURUA
SALGAI!
14€

EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | AINGERU EPALTZA
- 19 | BEÑAT SARASOLA
- 20 | GOTZON BARANDIARAN

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRATIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: LARS WEHRING
- 54 | BERANDUEGI



DOS POR DOS / KAULDI IRONDO

32 | GLOVO ENPRESARI BURUZKO ARTIKULU-SORTA

Jatetxeetako janaria etxetara banatzeaz arduratzen den enpresa berri honi buruzko lau erreportajeiko seriea abiatu du ARGIAk, Paul lanoren eskutik. Lehen lan honetan, *rider* edo banatzaileek zenbat kobratzen duten aztertu du egileak, kalean eginiko kazetaritza lana ardatz hartuta.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
Tanzaniaraino heldu da plastiko uholdea: nola berrerabili edo birziklatu diru oso gutxirekin?
Pello Zubiria Kamino

12 | MARIBEL ARRIORTUA, IKERTZAILEA
“Gizartearen barru-barruan dago Euskal Herriko Unibertsitatea”
Miel A. Elustondo

► 22 | EHZ FESTIBALA
Arnasgune biziberritua
Gorka Peñagarikano Goikoetxea

28 | LISA VOLLMER, IKERTZAILEA
“Subjektu politiko berri bat ari da eratzen etxebizitzaren problematikaren inguruan”
Amaia Lekunberri Ansola

36 | NAZIOARTEA
Ikasle gaztelania-hiztunak 48 orduz galegoz
Onintza Irureta Azkune

44 | MIREN AGUR MEABE, IDAZLEA
“Edozein bizitza arrunt birbalariza daiteke idazketaren bitartez”
Danele Sarriugarte Mochales

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iñaut Gonzalez de Matauko, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asumendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaina taldeko kidea da
ARGIA honako enpresek in batara:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



Geroa berdintasunarena da

Poza, festa, parranda... eta gero eta partaide gehiago Irungo alarde parekidean, gero eta neska gazte gehiago. Etorkizuna gero eta garbiago mintzo da. Horrexegatik bakarrik ere, berdintasunak aurrera darrai. Gero eta giro lasaiago horrek, ostera, badu bere ifrentzua: bi alarde dira oraindik eta agintari nagusiek bazterketaren alardea babesten jarraitzen dute, parekideari bizkarra emanez. Zerekin geratu? Geroa berdintasunarena da, aldarrikapenak jarraituko du eta bazterketak ez du jai giroa zapaltzea lortuko.

 JON URBE / FOKU  XABIER LETONA





"IZAN GAY NAHI BADUZU, BAINA EZ DUZU ZERTAN LUMA ERAKUTSI", DIOTE. AIX, DENOK ERE LUMA GEHIXEAGO BAGENU, GIZARTE KOLORETSUAGOA ETA ASKATZAILEAGOA LITZATEKE GUREA. LUMA ERAKUSTEA EZ DA LOTSAGARRIA, IRAULTZAILEA BAIZIK!.

@mikelgi



ITSASOAN ERE BIZITZAK ERDIGUNERA EKARTZEN DITUZTEN #CAROLARACKETE BEZALAKO EMAKUMEAK ETA KAPITAINAK DIRA GURE EREDU, ETA EZ HERRIAK ETA EMAKUMEAK ZAPALTZEN DITUZTEN KONKISTATZAILEAK ETA HAIEN ONDORENGO LEGEAK. ELKANO EZ DA GURE EREDU #OSPATZEKORIKEZ #FREECAROLARACKETE #FREECAROLA"

@ElkanoriBira



GARAIK ALDATZEN ARI DIRA. GEROKO EUSKAL HERRI INDEPENDENTEA FEMINISTA IZATEA NAHI DUGU ORAIN. LEHEN, ORDEA, BAZTERTUA GENUEN KONTUA. KAS ALTERNATIBAREN ZEIN PUNTUTAN ZEGOEN EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ALDEKO ALDARRIKAPENA? GENERO BORROKA KLASE BORROKARI GAILENTZEN ARI ZAIO. NEOLIBERALISMOA HORRETAZ BALIATU AHAL DA, NOSKI. BAINA HORREGATIK KRITIKATU BEHAR DITUGU SOILIK FEMINISMOA ARDATZ HARTU DUTEN ANDRAZKOAK?

Jose Mari Pastor (Berria)



Mediterraneoko hilerria ekiditea, delitu

✍ IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO

Italiako itsas-mugaren ertzean hainbat egun nabigatzen ibili eta gero, Sea-Watch 3 ontzian zeuden 42 migratzaileen ezinegona amaitu da. Honek, bada, eragin zuzena izango du jada ikono bihurtu den Carola Rackete kapitainarengan. Izan ere, hiru delitu egozten dizkio Italiako Justiziak: gerra-ontziei obeditzeari uko egitea, debekatutako uretan nabigatzea eta gerra-ontzien aurkako erresistentzia eta biolentzia.

Joan den larunbat goizean porturatu zuen Racketek Sea-Watch 3 ontzia Lampedusako portuan. Portura iritsi bezain pronto atxilotu zuten kapitaina, eta irlako bizilagun batek jaso zuen bere etxean, 48 orduko egoitza-atzipenaldian. Astelehen arratsaldean galdeketa egin zioten kapitainari, eta hortik aurrera jarraituko du bere aurkako bide judizialak. Nahiz eta delitu larriak egozten zaizkion, fiskaltzak Agrigento probintzian sartzeko debekua bakarrik eskatuko du.

Munduko hainbat GKEk eta Giza Eskubideen Aldeko Elkartek irmoki salatu dute Italiako Gobernuaren jarrera, 42 pertsonen bizitza arriskuan jarri dutela esanaz. Ekialde Hurbilean eta European errefuxiatuen egoera nolakoa den ikusita, giza eskubideen aurkako erasotzat jo dute kasu hau.

ERRESISTENTZIAREN GORPUZTEA

Italiak errefuxiatuak salbatzea zailtzeko lege berriak onartu ditu aurten; adibidez, baimenik gabe ur italiarretan sartzen den GKE orok 50.000 euroko isuna eta 15 urterainoko kartzela zigorra jasoko du. Sea-Watch 3 ontzia baimenik gabe ibili zen Lampedusa irla inguruan hainbat egunez, eta Matteo Salvini Italiako barne-ministroak eta Carola Rackete kapitainak etsaitasuna adierazi zioten elkarri. Salvinik publikoki hainbat adierazpen egin zituen Sea Watch GKEaren aurka. Joan den larunbatean, Racketeren atxiloketa eta gero, pozik azaldu zen Salvini, nahiz eta egin zutena Italiak sinatutako nazioarteko akordioaren aurkakoa izan.

Carola Racketeren atxiloketa dela eta, munduan erakunde eta pertsona asko jarri dira kapitainaren alde, eta bizitzak salbatzea ez dela delitua aldarrikatu dute. Rackete askatzea eta berehalako kargugabetzea eskatu dute, eta migratzaile eta errefuxiatuen aurkako politikak amaitzea eta nazioarteko legedi eta akordioak errespetatzea aldarrikatu dute. ●

GAIZKI ERRANKA

Anonimoa



SANTI LEONÉ

Hondarrean, finasterida hartzen hasi beharko dut. Ez da erabaki erraza izan, baina uste dut on egingen didala, edo bederen ez didala kalterik egingen. Diotenez, farmako garestia da –ongi bilatzera, 90 pastilla 43 euroren truke saltzen dituenik aurkitzen ahal omen da–, baina kalkulatu dut aspaldian egin nuen 1.000 euroko inbertsioa berreskuratuz gero, aise mol-datuko naizela.

Oso zabaldua dagoen joera da hedabideetan kritikak zeharka egitekoa, jomugan nor dugun adierazi gabe gezia botatzekoa, baita erran beharraren hutsaltasuna aipu –ustez– kultuen bidez estaltzekoa ere. Iritzi kriptikoa, nornahik txalotzeko modukoa, baina soilik interesatuak harrapatuko duena.

Ez da sekulan hori nire estiloa izan –txio batzuk kenduta, beharbada–; aukeran, kritikatuaren izen-deiturak aipatu nahia-go izan dut beti, eta, pellokeriak erratekotan, umorearen bidez saiatu izan naiz nire gabeziak disimulatzen, pedantekiaren bidez disimulatu beharrean. Tira, izateko manierak dira. Xehetasun gehiagorik ematea ez du merezi segur aski.

Ari naiz hau guzia kontatzen, aste honetan ez baitakit zehazki zeri buruz idatzi beharko nukeen; apika umorera jo beharko nuke. Ratoxka batez pentsatzen aritu ondotik, bururatu zait kontatzen ahalko nukeela ortzilarean gauenara sartu zitzaigula etxera, banpiroen film bat ikusten ari nintzela, baina oraindik ez dut sustoa gainditu. Tarteka, horrelako gauzak gertatzen dira. Ez da erran beharrik ere zeinen onak izaten diren gaurkoa bezalako zutabe tontoak, inor zirikatu gabe idazten direnak, zinez eskertzekoa da horrelako testuek mundu guzia bakean uzteko ematen duten aukera paregabea, zeren, jakina, norbait kritikatu nahi izan banu, norbaitekin ados egon izan banintz, nire ohituari jarraiki, haren izen-deiturak agertuko ziratekeen testuan. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

"KAPITALISMOAK LGTB IDENTITATEA ERABILI NAHI DU ETA UTZI EGITEN DIOTE"

ERLANTZ IGLESIAS (HARRO) "BILBAO BIZKAIA HARRO" KRITIKATUZ:

"Horrek despolitizazioa dakar: aldarrikapena urtu egiten da, eta bakarrik geratzen dira «love is love» eta «homofobiarik ez» mezuak. Hau da, aldarrikapen orokorrak egiten ditugu, baina ez dugu aztertzen zein diren zapalkuntzaren sustraiak. Azkenean gizon zuri homosexualak izan dira aldarrikapen horren instrumentalizazioan gehien parte hartu dutenak, eta horren onurak dituztenak. Lesbianak, bisexualak eta transexualak bazterrean geratzen dira..

(BERRIA, 2019/06/29)



Intransigentzia berbera patronaletan



JUAN MARI ARREGI

Azken asteetan Hego Euskal Herrian bi greba garrantzitsu nabarmendu zaizkigu, eta kalean elkar hartuta atera dira langileak. Gipuzkoan, adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako langileak –ia 5.000 lagun–. Bizkaian, metaleko langileak –dozenaka mila lagun biltzen ditu lurralde horretako sektore garrantzitsuenak–. Bata zein bestea luze doaz. Bizkaiko metalean aldizkakoak dira lanuzteak eta jadanik bost egin dituzte; uda ostean berriz ere helduko diote borrokari uztailan ez bada adostasunera iristen. Gipuzkoako erresidentzietan, berriz, langileek 70 egun daramatzate greban.

Bi greben atzean arrazoi berbera dago: lan-hitzarmen duin bat. Adinekoen egoitzetako kasuan, hobekuntza ekonomikoak eskatzen dituzte emakumeek, egoitza pribatueta gizonetako langileekiko jasaten duten soldata arrakala %30ekoa dela baitiote, urtean 6.000 euro. Zaintzen kalitatean ere hobekuntza eskatzen dute. Metaleko langileek, berriz, enpresetako ekonomiaren gorakada soldatetan ere nabaritu dadila nahi dute.

Metalean, grebaz gain manifestazioak ere egiten dituzten bitartean, erresidentzietan lurralde osoan zehar martxa bat egin dute, Zaintza martxan lelopean. Patronalen erantzuna, metalean pribatua eta adinekoen egoitzetan publikoa (foru erakundea), berbera izan da: intransigentzia. Negoziazioa eta elkarriketa saiakerak atzeratu dituzte, egoera usteltzen uzteko. Aurretik izan diren antzeko esperientziek eta lan-gatazkek zer pentsatua eman beharko lieke patronal horiei. Askoz gehiago galtzen da intransigentziarekin, elkarriketaren bidez adostasunera iritsita baino. Eta patronal publikoa eredu izan beharko litzateke pribatuarentzat. ●



Hezteaz eta hazteaz

MIKEL ASURMENDI

La manada auziaren sententzia ezagutu ostean ari naiz pentsaketa. Inork gutxi espero zuen epaia eman du Espainiako Auzitegi Gorenak: “Sexu eraso” izan da, “bortxaketa jarraitua”. Ongi. Bidezko erabakia, zuzena. Bortxatzaileak espetxera.

Jendarteak justizia gura du, gizarte justu baten egarri bizi da jendea. Behialako Elizaren –jainko potrosoaren– justizia nola, Estatuarena behar du egun. Epaia “asetzen” bagaitu, pozarren. Nago baina, zuhaitzek ez d(ig)utela basoa ikusten uzten.

Erran nahi baitut: bortxatzaile bat izateak aski behar luke izandako *arkeri* ankerra irudikatzeko. Nago ez ote den beharrezkoa izan “eszenatokian” bost gizonezko eta emakumezko bat egotea jendartearen iruditeria amiñi bat inarrosteko.

Bost “lagun” horiek epaitegitara bidean ikusi izan ditut –telebistaz–, euren gogo aldarte sanoan eta itxura apainea, espektakuluaren gizarteko jende normala ageriz. “Norma”-ren barruan onartuta, beraz, “normalak”. Gizonezko “bakar” batek inor bortxatzea ikaragarria bada, bost “lagunek” beren zakila “alu” berean sartzeko ilaran egon zirela pentsatzeak “nire gogoaz beste” egiteko nahia kitzikatu dit.

Animaliek –emeek arrek edota arrek emeeekin– kopulatzen dutenean, arrak bosnaka jartzen ote dira errenkadan? Iruñeko bortxaketan, ikusmira nagusia izan da jakitea “emeak gogorik zuen edo ez zuen”. Niretzat berriz, “ikusmira” da, bost lagun horiek beren taketa zulo berean sartzeko irrikaz egotea.

Gizakiak –gizonkia eta emaztekoa– arrazoidun izateagatik animalia izateari laga bazion, bego arrazoigabe arren! Pertsona –izaki egilearen maskaraduna– jabetu ezean eskubide adina betebeharrak duenez, zertarako justizia? Gizabanakoek gure burua hurkoarengandik gero eta bereziago –aske eta berekoa– paratu dugunean, estatuko epaileak –behiala elizak nola– ezarri behar du zigorra.

Euskal Herrian “gertatu” da, beraz “egokia” begitantzen zait gure balizko estatuaren jite gisako bat hartzeko: “Euskal Estatua izanen bada, estatu feminista beharko du izan”, diote batzuek. Ni ados. Izanen bada, “errepublikarra –sozialista– izanen da”, beste batzuek. Ados. “Euskalduna –alboko hizkuntzen maila berean euskaraz biziko dena– izanen da, edo ez da izanen”. Ados ere bai.

Alabaina, Euskal Estatua izan liteke feminista, sozialista eta euskalduna, eta izan liteke horregatik zanpatzailea –bortxatzailea–. Inork pentsatzen al du, zinez eta minez, ezaugarri horiek –edo beste batzuek– berez eman diezaioketela gizakiari, pertsona edota norbanakoari heziera duinik? “Normala” izateko duineko heziketarik? Ba ote dago pertsona haztea, gaur egungo heziketak jendea haztea tratatzen duelarik? ●

Hegoaldeko biztanle gehienek aire kutsatua arnasten dute

Ekologistak Martxanek jakinarazi duenez, EAEko milioi eta erdi pertsonak aire kutsatua arnastu dute 2018an: biztanleriaren %70ak, lurraldearen %47an. Nafarroari dagokionez, lurraldearen bi heren ari dira kutsadura maila altua jasaten. Talde ekologistak urtero osatzen duen *Espainiako Estatuko Aire Kalitatearen Txostena* aurkeztu du. EAEn kutsadura neurtzeko dauden 55 estazio ofizialeko datuak aztertu dituzte, .

OZONO MAILA GORA

Taldeak gogoratu du EAEko aireak duen ozono kontzentrazio maila arriskutsua dela bai gizakientzat bai naturarentzat. Kutsaduraren foku eta sortzaile nagusiak EAEko hiri-buruak, autopistak, autobideak eta Nerbioi Behera eskualdeko industriak dira. Gune horietan sortutako kutsadura inguruneetara zabaltzen da ozono troposferikoaren bitartez.

BI KUTSADURA ITURRI

Nafarroan Ebro bailaran dago bat, ziklo konbinatuko zentral termikoek eragindakoa; baita Tuterako Guardian Glass eta Faureciaren eta AP-15 eta AP-68 errepidearen eraginez ere. Iparraldean, Portland fabrika, Torraspapel, Iruñeko Volkswagen eta Iruñerriko trafiko handia dira kutsadura iturri nagusiak.



AUZITEGI ETA KOMISALDEGIETAKO GARBITZAILEEN GREBA AMAITU DA

GARAIPEN FEMINISTA. Garbialdi enpresan lan egiten duten garbitzaileek amaitu dute 280 eguneko greba; Gipuzkoako komisaldegia eta auzitegiak garbitzen dituzten langileen eskaria nagusitu da azkenean. Irailean hasi ziren grebarekin, emakume eta gizonen arteko soldata-ezberdintasunarekin amaitzeko. Haien kalkuluen arabera, komisaldegietan lan egiten duten garbitzaileen oinarritzko soldata %13 eta auzitegie-tan jarduten duten langileen oinarritzko soldata %7 igotzea lortu dute..

EITB-KO LANGILEEN %70ak

uste du taldeak ematen duen informazioa Eusko Jaurlaritzaren aldekoa dela; %16,1aren iritziz ez da horrela.

25,9ak uste du "EITBko eta sektoreko profesionalek", sindikatuek, alderdi politikoei eta jendarte zibileko mugimenduei osatutako gune batek aukeratu beharko lukeela zuzendaritza.



PELLO URIZAR. Hamar urtez EAko idazkari nagusi gisa jardun ondoren, arrazoi pertsonalak argudiatuta dimisioa eman du arrasatearrak eta bere kooperatibara itzuli-ko dela iragarri du. Eusko Legebiltzarreko EH Bilduko parlamentari kargua ere bertan behera utzi du.



MARIA DEL PILAR HURTADO. Ekainaren 21ean hil zuten tiroz Kolonbiako Tierraltan, lau seme-alabetako biren aurrean. 34 urte zituen, giza eskubideen defendatzailea zen eta etxebizitza duin bat izateko eskubidea-gatik borrokan ekintzailea.



ENRIQUE MAYA. Navarra Sumako Iruñeko alkate berriak sanfermin festetako txupina-zoan udal plazan bandera eta aldarrikapen oihal handiak sartzea debekatu du. Erantzun gisa, Txapitela kalean 11:00etan "Gure ikurren alde" lelopean kalegira deitu dute.

TANZANIARAINO HELDU DA PLASTIKO UHOLDEA: NOLA BERRERABILI EDO BIRZIKLATU DIRU OSO GUTXIREKIN?

Mundu guztia ari da borrokan plastikoekin, erabilera labur baten ostean non utzi asmatzen ez dugun material merke horiekin. Batean erraustegi garestiak eraikitzea eragin dute, bestean eremu osoak –ozeanoak barne– zabortege bihurtzea, sarri populazio osoak kondenatu birziklatze deitzen dituzten lan arriskutsuetan aritzera... Plastikoak globalak baldin badira, horietako batzuk berrerabili edo birziklatzeko ahaleginak ere globalak dira.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

L eire Diez Larreak idatzi digu ARGIA-ra crowdfunding kanpaina baten berri emanez: “Njombe Beyond: plastiko birziklapena eskala txikian Tanzanian. Shipo Smart Centre Njombe (Tanzania) ekintzaileak trebatzen ditu plastikoari bigarren bizitza emateko teknologia sinple eta eskuragarriaren bidez. (...) Njombe Euskal Herrian baino plastiko gutxiago erabiltzen den arren, haren inguruko kontzientzia murrizta da: ohikoa da plastikozko botilak ingurumenara botatzea edo plastikoa etxe ondoan erraustean kea lasai asko arnastea. Gainera, adibide horiek saihesteko baliabideak oso murrizak dira edo ez dira existitzen”.

Diez Larrea bilbotarrak ezagutarazi nahi digun proiektuak helburu dauka “erraustuta, zabortegean ala ingurumenean bukatzen duten hondakin plastikoak murriztea. Nola? Njombe ekintzaileak trebatu eta lagunduz eskala txikiko plastiko birziklapenean ekin dezaten SMART (Sinpleak, Merkatu oinarrituak, Eskura errazak eta Konpongarriak) teknologiak erabiliz. Jadanik bertako ekintzaileak prest daude, Njombe Udalaren babesa dugu eta makinak muntatzeko ekoizleak ezagutzen ditugu. Makinak muntatzeko finantzazioa lortu bezain laster, lanean hasiko gara”.

Goteo plataforma katalandarrean antolatu dute 6.160 euro biltzeko kanpaina. Bertan proiektuaren azalpenak irakur daitezke ingelesez, espainolez,

italianoz eta euskaraz: “*Njombe (Tanzania) ekintzaileak trebatzen, plastikoa birziklatzeko makina sinpleak erabiliz, bertoko beharrak asetzeko*”. Lerrook idazteko orduan diruaren bi herenak lortuta zeuzkaten.

Proiektuak hartzen duen eremuan, Njombe eskualdeko hiriburuan, egunero bere 40.000 biztanleek 35 tonatik gora hondakin sortzen dituzte. Horietatik 28 tona udal zerbitzuek bildu eta kontrolik gabeko zabortegean pilatzen dituzte eta maiz su ematen diete, zaborrak erraustuz biltegi gehiagorentzako lekua egiteko. Zerbitzuek bildu gabeko beste zabor asko erretzen dituzte familiek nork etxe inguruetan prestatutako zuloetan edo edozein bazterretan sakabanatuta uzten.

Ipar aberatseko kontsumismo mailatik urrun daudenez, hemen hondakinen 10% inguru osatzen dute plastikoek: 3.500 kg egunero, 1.000 tona urtean. 2017a arte, plastikozko botiletako asko batu egiten zituzten bertako zenbait enpresak, gero horiek birziklatzera Txinara bidaltzeko. Alabaina, 2018an Pekingo gobernuak erabaki zuen plastikoen inportazio masiboari oztopoak jartzea eta debekuaren atzerakako uhina Tanzaniaraino heldu zen.

Txinaren erabakiak mundu osoko zaborren trafikoa butxatuz bi uholde handi eragin ditu. Bata, zabor-errekaren beheko aldeari dagokiona, asko aipatu dena: nola zabor trafikanteak hasi diren Txinak nahi ez zituen zaramak Asia

hego-ekialdeko beste herrialdeetara eramaten, Filipinetara, Vietnamera, Malaysiara... eta baita Afrikara ere, birziklatze aitzakiatan horientzako zabortege merke bila.

Butxadurak beste aldetik, zabor-trafikoaren iturri aldetik ere sortu du uholdea, nagusiki herrialde aberatsenetan –AEB, Kanada, Europar Batasuna, Australia...– baina baita hondakinentzako kasik azpiegiturarik ez dauzkaten herrialde txiro askotan ere, plastiko eta material berrien inbasioa gertakizun globala baita gaur.

TEKNOLOGIA MERKEZ

Tanzaniari horixe gertatu zaio: 2000. urtetik hona plastiko eta gomen inportazioa %400 igo da Afrikako herrialde honetan eta horien hondakinen arazoa izugarri areagotu. Njombe Beyondek diru bilketaren argudioetan dioenez, “Tanzaniako (Njombe barne) eta oro har, Saharaz hegoaldeko Afrikako joera ez da batere itxaropentsua: biztanleria hazkuntza azkarra, kontsumoaren igoera eta beraz, hondakinen sorkuntzarena, eta azken hauen bilketa eta kudeaketa gabezia, jarduteko momentua orain dela adierazten dute, plastikoen arazoa handiagoa bilakatu baino lehen”.

Njombe Beyond (Njombetik harago) proiektuarekin eskala txikiko tailerrak antolatu nahi dituzte plastikoa birziklatzeko. Eredua Precious Plastic proiektuan aurkitu dute. Gaur 30 urte dauzkan Dave Hakkens ingeniari gaz-



ZABOR BILKETA NJOMBEN

TANZANIAN ERE SENTITU DA
PLASTIKOEN KRISI GLOBALA, TXINAK
HORIEI ATEA ITXI DIENETIK.

teak Holandan hasi zuen Precious Plastic 2013an eta plastiko kutsaduraren aurkako ezagutza, tresna eta teknika berriak sortu eta dohainik sareratzen dituzte, libreki partekatzeko asmoz. Horrela ugaritu dira munduko hainbat bazterretan plastikoari bigarren bizitza ematen dioten artisau tipoko egitura txiki eta merkeak.

Precious Plasticen eskaintzen dituen material, dokumentazio, planoak eta abarrekin birziklatzeari ekin nahi dion hasi berriak jakin dezake nola antolatu merke –kontainer huts baten barruan, esaterako– lantoki txiki bat, plastikoak birrindu, urtu eta manipulatzeko tresnak (birrintzaileak, injektoreak, estrusiokoak, konpresoreak...) nola eraiki, horiekin egindako produktuak nola bihurtu salgarri, eta abar. Hakkensek bizimodua ateratzen du Patreon pla-

taforma bidez hilero diruz laguntzen dutenen donazioetatik.

Njombe Beyond proiektuak gaur enplegatuta dauzka hiru ingurumen ingeniari eta komunitate garapenerako aditu bat, Tanzaniako SHIPO Gobernu Kanpoko Elkartearen barruan ari direnak. SHIPOk bere aurkezpenean dioenez, hamabi urte daramatza ur hornidura, estolderia, erregadio, nekazaritza eta mikrofinantza zerbitzuak eskaintzen bai lekuko komunitateei eta bai enpresa pribatuei ere. Mikrofinantza programak Sacco's Bank kuxaren bidez burutzen ditu eta bere maileguak nagusiki herritarrek ur hornidura koste apaleko teknologia bidez eskuratzeko erabiltzen dituzte.

Ipar aberatsean *low cost technology* inork aipatzekotan ingurumenaren eta iraunkortasunaren aldeko hautua egin duten gutxiengo urri batek aipatzen

badu, Hego txirotuan koste apaleko teknologiok dira eguneroko beharrak asetzeko bide eraginkorrena eta sarritan bakarra. Erraz eraiki, mantendu eta konpondu daitezkeen egitura eta makinak, eskuz erabiltzeko modukoak, urrutitik, garesti eta nekez ekarri beharreko piezarik gabekoak... horietan daude berezituak Malawi, Uganda, Kenya, Burkina Faso eta Mozambiquen ere zabalduta dauden SMART Centreak, Tanzanian SHIPOk bere gain hartu dituenak.

Eguneroko bizitzaren atal ezinbestekoa bihurtu diren plastikoei bigarren aukera bat eman nahi diete Njomben ere eta horiekin bizimodu bat bermatu negozio txiki eta langile berri batzuei. Ezagutu beharko lituzkete Euskal Herrian polimero kutsagarri berriak sortzen jarraitzen duten kimikari arduragabeek. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com








GIZARTEAREN BARRU-BARRUAN DAGO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



“Grina eta ahalegina. Uste dut horiexek direla ezelako jarduera zientifikoren oinarritzko osagaiak. Saiatu beti zure lanak zeure-zeure zigilua izan dezan, edozertarako ere bidea egin behar dela ahaztu gabe, eta bikaintasuna ez dela egun batetik bestera lortzen”. Maribel Arriortua ikertzailearen gogoeta, elkarrizketa gozo bat laburtzen asmatzen ez duena, haatik.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Zenbat bider azaldu behar izan duzu zer den kristalografia?

Askotan ere ez. Batzuetan bai, hala ere. Esate baterako, 2014an, Kristalografiaren Nazioarteko Urtea, eta orduan hainbatetan galdetu zidaten hedabideek. Irratsaio bat ere egin nuen kristalografiaz Enrike Zuazuarekin, aipu eta sona handiko matematikariarekin. “Zuk hitz egiten ez baduzu, nork egingo du, bada?”, esan zidan. Kristalografiaren bitartez gauza asko egin litezke, materiala ulertzera iristen gara eta. Material bat, egitura kristalinoa aldatu, eta sentsore bihur liteke. Hau kit txiki batera eraman,

eta uretan dauden kutsagarriak detektatu ahal dira. Afrikan oso baliagarria izango litzateke, adibidez. Kristalografiak horretan laguntzen du.

Kristalografo zaitugu, nahiz Kimika ikasketak egin.

Bai. 1976an bukatu nituen Kimika ikasketak, eta tesia irakurria nuen 1981ean. Kimikari nintzena, materialekin topatu nintzen. Konturatu nintzen ez nintzela zenbait materialekin lan egiteko gauza; semikondutoreekin, adibidez. Materialak manipulatu, eta itxuraldatu egiten zitzaizkidan. Ez nuen ezer ulertzen. Bes-

telako diziplinaren bat falta zitzaidala konturatu nintzen, eta katalanekin hasi nintzen lanean, hemen lanean ari ziren irakasleen bitartez.

Katalanak irakasle ari ziren hemen go unibertsitatean?

Bai. Euskal Herriko Unibertsitatea baino lehen, hemen Bilboko Unibertsitatea zegoen. Irakaslerik ez berton, eta kanpotik ekarri behar izan zituzten. Hutsetik hasi ginen. Katalanen bitartez, Belgikara joan nintzen, Louvain-la-Neuve unibertsitateara. Punta-puntakoa zen kristalografian. Ingalaterra, Alemania eta Belgi-

Maria Isabel Arriortua Markaida

BURTZEÑA, BARAKALDO, 1950



Kimikaria, doktore eta katedraduna, EHUKo Kristalografia eta Mineralogian egin du bere ibilia. Unibertsitateko Ikerketa Zerbitzu Orokor SGIker-eko buru da, eta Espainiako Ebaluazio eta Prospektibako Agentzia Nazionalen Zientzia eta Materialen Teknologia arloko koordinatzaile ohia. Ikerkuntzako Euskadi Saria jaso zuen 2010ean, Jakiundeko kide numerario da 2012az gero. 2014an, Eusko Jaurlaritzako zientzia-aholkularitzako batzordeko kide izendatu zuten. Iaz, Kristalografia eta Hazkunde Kristalino GE3C-ren urrezko domina jaso zuen eta, aurten, berriaz, EHUren omena eta Ikerbasqueren saria jaso ditu.



ka ziren orduan puntakoenak Europan kristalografian. Gabriel Germain irakaslearekin egin nuen lan, aitzindarietako bat kristalografian. Haiek pozik, hara joan ginelako. Gu, gazte, goizetik arrats lan egiten genuen. Haiek, berriaz, arratsaldeko laurak edo bostetan, agur! Gu, gaueko hamaikak arte ere gelditzen ginen lanean. Dena ikasi nahi genuen, denborari etekina atera, 1979-1980an hemen ezer ez geneukan eta. Gero, ni han gelditzea nahi izan zuten. Nik, ezetz.

Zergatik ez?

“Kontaktua, nahi beste”, esan nien, “baina nik neure herrira itzuli behar dut, hemen ikasitakoa martxan jarri behar dut han”... Nire herriak aurrera egin behar zuen, neure aletxoa ipini behar nuen. Luzaroago geldi nintekeen han, baina ez. Ateak zabalik utzi nituen, han eta egon naizen toki guztietan, Tolosan (Okzitania) nahiz Alemanian, baina nire gogo

beti izan da erbestean ikasitakoa hona ekartzea. Eta etorri nintzen, eta hemen abiarazi genituen gure proiektuak. Nire erantzukizuna zela uste nuen. Hemen ez geneukan-eta ezer. Pedro Migel Etxenike sailburu izan zen arte. Orduan, dirua etorri zen, eta behar ziren gauzak erosten hasi ginen. Ordu arte, erbestera irten besterik ez genuen egiten. Ilusio itzela geneukan.

Erbestean dira gazte talentu handiko asko.

Ea denak bueltan ekartzen ditugun. Baina hemen ez dago lan egiteko tokirik. Talentua ondo kudeatu behar dugu. Demografia arazoa dugu, talentu premia, aldaketa klimatikoa... Lehen, adarretik adarrera ikusten nituen kategorriak. Orain, bat bakarra ikusi ohi dut, intxaurrean. Biodibertsitatea galtzen ari gara. Gauza horiek denak zaindu egin behar ditugu, haien ondorioak apaldu, behintzat.

Talentua kudeatzeko zer egin behar dugu? Talentu-ihesa nola geldiarazi?

Adibide bat jarriko dizut: Txina. Hasieran, kopiatu baino ez zuten egiten. Gero, hartu talenturik onenak –txikitatik aukeratuak, talentu handikoenak–, eta munduko laborategirik onenetara bidaltzeari ekin zioten. Ondoren, itzularazi zituzten, eta inoiz ez bezalako laborategiak egin zizkieten. Horrela, Txina, kopiatzetik, produktu merke bat saltzetik, berrikuntza lideratzera iritsi da. Buruak dituztelako, eta ezagutza eta talentua. Guk ere hobe genuke kanpoan ditugun talentuak ekarri. Eta hemen bertan ditugunak zaindu. Talentua ondo kudeatzen ez badugu, ez daukagu zer eginik.

Badakigu zer egin behar den. Egiten dugu?

Hor da Ikerbasque, lanean. Erronka estrategikoa da.

Ea, zuzen egingo dizut galdera: egi-ten du Eusko Jaurlaritzak?

Jaurlaritza esan duzu, baina zer egiten dute gure enpresek talentua harrapatzeko? Ez da, bakarrik, Eusko Jaurlaritzaren gaia. Gehiago egin liteke. Mundua oso arin doa, eta gehiago behar da aurrerapenaren trena ez galtzeko. Bestalde, soldatak ordaintzea-eta garestia da.

Garestiak dira azpiegitura erraldoiak ere.

Bai, bai... Honetan, gizartea inplikatu behar da. Eta haren inplikazioa ez da, besterik gabe, zergak ordaintzea. Benetan inplikatzeko da. Esate baterako, ekainaren hasieran haur talde bat etorri zen unibertsitatera. Proiektu pilotu bat egin genuen iaz Leioako Udalarekin; Leioakoarekin, bertan gaudelako, alegia. 6-8 urte bitarteko hamar neska-mutil etorri ziren. Neskak eta mutilak, erdibana nahi nituen, baina taldean zazpi mutil eta hiru neska ziren, eta horrelaxe etorri ziren. Unibertsitatean eman zuten goiz osoa, tailerretan. Txikitatik hasi behar da, txikitatik izan ditzaten sentipenak, nork bere mentorearen laguntzaz. Hamalau urte di-

tuztenean, ez dugu haien inguruarekin lehiatzerik.

Haurrak etorri zirenean, neskak eta mutilak erdibana nahi zenuela esan diguzu. Zure garaian, mutilak %99, neskak %1 izango zirenen, ezta? Neska bakarra zu.

Kar, kar... Ez, bakarra ez. Letretan bazen neskari, baina zientzia eta teknologian, bakan. Baina begiratu orain ere Euskadi Ikerkuntza sariak. Carmen Gallastegi eta biok beste emakumerik ez duzu sarituetan. Gelak, berriz, neskaz beteta daude, txosten akademiko onenak eurenak dira, baita karrera teknikoetan ere. Edo begiratu epaileetan ere. Oposizioak direnean, emakumeek irabazten dituzte. Baina, gero, enpresan, erakundeetan, eta gizartean oro har, gizonak dira goi-karguetan nagusi. Egunkaria hartu eta, eman dezagun, halako kontseilu edo batzorde baten argazkia, eta gizonezkoak dira denak. Traje urdinak besterik ez da ikusten. Inoiz, tartean, emakumezko bat. Pentsaezina da banaketa hori.

Irakasle, ikertzaile, kudeatzaile...

Nola egin litezke hiru lanak batean?

Pieza oso bat zara. Lisatzea gustatzen zait, erlaxatu egiten nau, eta lisatu bitartean, egin behar ditugun lanak pentsatzen ditut, edo hurrengo biltzarrean aurkeztu behar dugun ponentzia. Burua ez da gelditzen. Horretan, lehenengo orduak dira onenak. Goiz jaikitzen naiz, ez dago zaratarik, bakarrik zaude, eta ordu gutxi behar dituzu zure lanerako. Arratsaldeko lehen orduan, bileraren bat egin liteke, eta azkeneko orduan, berriz, organismoa nekatuta dagoenean, mezu batzuk bidali. Baina sortzeko orduak goizekoak dira. Eta sortzaile izan behar da, jarrera erakitzailea, jarrera positiboa izan. Jendeak uste du, adibidez, oraingo hezkuntza sistema hobe dela ikasleek tableta erabiltzen dutelako. Ez, irakaslea da inportantea. Mentorea.

Horixe aipatu duzu lehen ere, mentorea.

Prestatzailea, tutorea... nahi duzun moduan esan. Esate baterako, Messi.

Hobe genuke kanpoan ditugun talentuak ekarri eta hemen bertan ditugunak zaindu



PEDIATRIA KONTSULTAK

“Inoiz, baten bat behar karguren bat hartzeko, emakumezkoari esan, eta ezin duela. Gauzak aldatzen ari dira, baina haurrak zaindu behar ez ditugunean, helduak zaindu behar ditugu. Gizartea aldatzen ari da, baina astiro-astiro. Bada esaldi bat nire kide batek asmatu zuena, eta nik gustura erabiltzen dudana: ‘Pediatría kontsultak gizonezkoak beteta dauden egunean, orduantxe esan ahal izango dugu aurrera egin dugula’. Balio du, ezta?”

EKONOMIA ZIRKULARRA

“Ekonomia zirkularra hitzean eta hortzean aipatzen da orain. Gure amamak baserrian aplikatzen zuen ekonomia zirkularra! Ura iturrian hartu, ortuariak harekin garbitu, ortukoak ere harekin ureztatu... Janari hondarrak, gauza askoren azalak-eta, oiloei ematen zizkien. Hondakin gutxi sortzen zituen amamak. Bendeja hartu eta, astoan, Mungiara joaten zen, eta handik olioak ekartzen zuen. Eta, txikitari, tebeoa ere ekartzen zigun inoiz. Eta hartu tebeoa, jezarri mimosaren azpian hura leitzen, eta zoragarria! Orain hori kontatu eta kuaternariokoa iruditzen zaio jendeari”.

Azken hitza: NEURONA BAKEAN

“Bai, *on* moduan egon behar da, baina beti ezin da. Ni ere ez nago beti *on* moduan. Batzuetan *off* egiten dut. Neure buruari esaten diot, ‘Maribel, utzi neurona hori bakean’. Nekagarria da bestela”.



MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

Ogiaren egia



**Galparsoro
OKINDEGIA**

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantz ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) · DONOSTIA · Tel.: 943 421 074



LUA arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132697 - Arga ibaia kalea 28-30 Iruña

Messi? Futbolaria?

Bai. *Crack* hutsa da, ezta? Bere arloan, esan nahi dut. Baserritarra sortzailea den moduan. Dena ez da unibertsitatea. Sortzailea bere lana ondo egiten duena da. Inportantea da zure lanak zure sei-lua izatea. Messi mentore ona izango litzateke. Haurrekin edo jubilatutako aktiboekin jardungo balu, adibidez, gauza handia izango litzateke. Erreferentia delako. Sortzaile izaera hori kutsatu dezake. Beste eredu bat, Adela Andikoa. Baserritarra, Urdulizkoa. Batzar nagusietan saria eman ziguten batean ezagutu nuen: "Lurraren artisau" titulua eman nion. Haren tomateak, haren postua azokan... Adela, jaiki eta egun on esaten die landareei. Garbi zaintzen ditu, giro lasaian... oso gauza inportantea da. Adela ere eredugarria da. Bere ezagutza transmititzen egin beharko luke lan. Urteetan eta urteetan lurra zaindu du, badaki lurpean ere zer gertatzen den, eta ingeniari edo zientzialariarekin, tomateak lurretik kanpora hazten dituenekin banatu beharko luke bere jakintza, eta haurrekin, gazteekin. Inork ez omen du baserrian lan egin nahi. Beharbada ez dugu mezua ondo transmititu, landan lan egitea zeharo aberasgarria dela ez diogu gizarteari jakinarazi. Gauza horiek ezin dira galtzen utzi, maitasunez zaindu behar dira.

Unibertsitatea presente dago gizartearen?

Lehenengo batean ere horixe entzun nuen esaten: "Unibertsitateak presentzia handiagoa eduki behar du gizartearen". Presentzia handiagoa? Gizartearen barru-barruan dago-eta unibertsitatea! Lizentziatu kopuru handia ikusi baino ez dago. Baina ez gara konturatzen. Enprekin lan egin behar dugula esatea bezala. Egiten dugu lan hori. Akabo ginateke bestela! Oraingo erronka da egin dugunari eustea, eta elkarlana areagotzea, xede berrien arabera lan eginez. "Misioak" esaten da orain.

Lehen emakume irakasle titularrak zaitugu EHUn.

Baina Kristalografia eta Mineralogia sailean, hori oker ipintzen dute-eta kaze-tariek.

Gogoratzen duzu grisak, espainiar polizia, Leioara etortzen ziren garaia? Leioan baino lehen gu Bilboko kalean egon ginen, Botika zaharrean. Gero, Leioara ekarri gintuzten, Bartzelonan

eta Madrilan egin zuten bezala, ikasleak hiriko kaleetatik ateratzeko, errebel-deak ginelako. Botika zaharrean geundenean, grisen aurretik korrika egiten genuenean -korrika egiten genuen eta, eta jo ere egiten gintuzten-, Deustura joaten ginen ihesi. Eta jendeak etxeetako bebarruak irekitzen zizkigun. Garai latza izan zen, baina jendeak laguntzen zigun! Gogoratzen naiz Leioara ekarri gintuztenean trenetxe etortzen ginela herrira, eta oinez igotzen ginela unibertsitateraino. Baserritarra herrira jaisten ikusten genuen, emakumea, astoan ben-deja hartuta, Leioako kalean saltzera, ilea mototsean eta paineluan bilduta gure amamak bezala. Azeriak eta saguzarrak ikusten genituen hemen... Gain hau garbi zegoen, ukitu gabe.

Guk jakin nahi genituenak gorabehera, egin dizkizugun galderak arren, zein dituzu zuk zeure kezka?

Errespetuaren galera. Errespetua galdu da, oro har. Horrek asko kezkatzen nau. Eta familiak jokatzeko duen rola. Gauzak asko aldatu dira, ezer ez da lehen bezala, eta ez du zertan izan, baina gazteak mugikorraren gainean ikusi, hitz egiten ez dutela, edo etxean daudela, bakarrik, inorekin elkarrekin gabe... Kezkatzekoa da. Umeak, eta gazteak, kalean egon behar dira, jolasean, eta denok ere, alaiagoak izan behar dugu, herri alaiagoa izan beharko genuke.

Herri alaiagoa ordukoa, beharbada. Barakaldon jaioa zaitugu, 1950ean.

Burtzeña auzoan. Hantxe dago Cadagua ibaia, eta zubia, eta zubiaren beste aldean, Zorroza... Cadagua angula-ibaia zen orduan. Gorainoko botak jantzi, ibaian sartu eta angulak harrapatzen genituen, eta jaten, haien prezioa gora egiten hasi zen garaia baino lehen, inork nahi ez zituenean. Burtzeñan jaio nintzen, etxean bertan. Aita arratiarra nuen, Dimakoa. Ama, Emerandokoa, Larraurikoa. Barrualdeko euskara zeukan bata; itsasaldekoa, besteak. Udan, notak jaso baino lehen ere, Emerandora eramaten gintuzten, amama Felisarenera, eta hantxe egoten ginen urriaren 12 arte, eskola berriz hasi arte. Larraurin ez zen euskara baino. Barakaldora itzuli, eta ezin euskararik egin. Halakoxea zen orduko alkatea. Eta, 12 bat urte nituela, apaizek euskara erakusten ziguten sakristiaren atzeko aldean, klandestinitatean. Liburuak ere bagenituen, Coca-colak inprimatuak... Euskaldun zaharrak gara gu. ●



Iritziak

Europarrak agian, espainiarrak ezin



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Euskaldunontzat paradigma baliagarria da Katalunia-Espainia lehian gertatzen ari dena. *Domino* operazioa deitu dute, baina are konplexuagoa deritzot. Hiru eszenatokitan libratzen da gudua: Katalunian bertan, Espainian eta Europan. Hiru horietara begiratu beharra dago, jokaldien norabidea asmatu eta balizko garailea nor izan daitekeen asmatu ahal izateko.

Azken hauteskunde europarren ondorioz sortu den egoerak Katalunia eta Espainia kokatu ditu bete-betean Europar Batasunaren agendan. Horren arrazoia: Carles Puigdemont, Antoni Comin eta Oriol Junqueras eurodiputatu hautatuen aurka Espainiako Estatuak hartutako neurriak eta, kontrara, hiru eurodiputatu hauek hartutako iniziatiba instituzional, juridiko eta politikoak.

Esan dezadan, aurretik, hiruron kasuak zein egoerak desberdinak direla. Junquerasen kartzelatik egiten dio aurre egoerari, eta immunitatearen defentsa eskatu beharko dio Europako Parlamentuaren presidenteari, berau izendatzen dutenean. Nik neuk ere ezagutzen dudana bidea da, duela bospasei urte gauza bera egin beharrean izan nintzelako; bide horren emaitzak bi baldintza ditu: Europako Parlamentuan aurreko presidente Antonio Tajani ez bestelako bat aurkitzea, eta bestetik, Espainiako Estatuak erabakia onartzeko prest egotea, kartzelan loturik daukana parlamentari aulkia hartzeko libre utziaz. Espainiako

Jokoan dagoena ez da hiru eurodiputatu katalanen aulkia. Jokoan dagoena da, ea Errepublika katalanak bidea egin ahal izango duen Europan barna, Espainian ez bezala, Errepublika independente beregaina izan arte

Estatuaren eskuetan, azken finean.

Puigdemonten eta Cominen kasua, aldiz, oso bestelakoa da, bi hauek ez daudelako maila horretan espainiarren esku. Izan ere, Espainiako Estatuak urru-negi joan da horien kasuan ere barne-legeriaren galbahetik pasarazi nahi horretan, Madrilen konstituzio espainiarrari men egin ezean europarlamentari aulkia galdu dutela aipatuz. Ez da horrela une honetan Europar Batasunean indarrean diren arau nagusien arabera. Izan ere, Lisboako Itunak (2009 urtetik indarrean dagoena, Espainiako Estatuak bera ere derrigortuz), bere 6. artikuluan sarrera ematen dio kasu horiek arautzeko Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunari, eta Gutunaren V.

Tituluak, bere aldetik, Europar Batasuneko Justizia Epaitegia izendatzen du era horretako auzietan epaia emateko erantzule. Bide horretatik, Espainiako Estatuari eskuetatik ihes dagio erabakiak. Kontuan izan, horren kariera, orain arte epaitegi europarretan, Espainiatik kanpo, erabaki diren auzi guzti-guztietan katalanek garaipena lortu dutela espainiarren aurka.

Nolanahi ere den, gatazka konplexu honen dimentsio nagusia ez da juridikoa, politikoa baizik. Jokoan dagoena ez baita hiru eurodiputatu katalanen aulkia. Jokoan dagoena da, ea Errepublika katalanak bidea egin ahal izango duen Europan barna, Espainian ez bezala, Errepublika independente beregaina izan arte. Horra hor benetako lehia estrategikoa, eta horren isla Katalunian bertan hiru bide desberdinen artean: bata *Puigdemont bidea* litzateke, Errepublikaren aldeko estrategia independentista Katalunian zein Europan inplementatzearen aldekoa; bigarrena, Junquerasen hautua, balizko gobernu espainiar aurrerazale batekin konponbidea negoziatzearen aldekoa; hirugarren aukera, Artur Mas berpiztuarena, bigarrenetik gertuago agertzen dena Puigdemonten bidetik baino. Bide bat edo bestea nagusitu, euskaldunok ez gaude gatazka horren begirale huts izateko moduan, gure etorkizuna ere, neurri handi batean, lehia horretan jokoan dagoelako. Ez da apustu kontua, erabaki kontua da. ●

Iraila arte



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Tiradera ordenatzeagatik, iragana bueltan letorkizuke, karpeta batean atzeman mezu bat dela eta, ikastaldearen argazkia dela eta. Ekaineko goiz batez, oporretatik banatzen zaituzten egunak kontatzen ari zarela lanean, ezdeuskeria batek hamar hila-betez atzera eraman zaitu eta nostalgiko bihurtu.

Ez duzu beti hala pentsatu, ez, bistan dena, goraldiak bezainbat beheraldiak izan zenituelako ikastaldearekin, baina horra, helduak dira eta dena den, orain, joanak dira. Eta aurtengoez bezala, lehenagokoez ere gogoratzen zara. Hainbeste izan dira, zaila dela denen gogoratzea eta zenbait izen burmuinaren zoko-mokotik oroitzeko baduzu lan. Errudun sentitzen zara, izan ere ikasleak, haiek, beti oroitzen dira irakaslearen izenaz. Ezetz? Baietz, zurekin zerbait ikasi duten ber, zurekin gogoratzen dira. Ahantzi bazaituzte, hainbat gaixto! Indar bat eginik, izenez gain, aurpegiak ikusten dituzu berriz. Denek egin dute bide zure aldean eta joan dira. Noizbehinka ikusten dituzu berriz, besta batean, ikastaro baten egitera itzultzen direlako, liburu -dendan gurutzatzen dituzulako, haatik haien bidea dute.

Bada sufrimendu puntu bat. Haste-ko, basamortuan sustraitzearen nekeziaz landareei gerta dakieken hori bera. Dena iruntzi beharra, pertzepzioak, ohiturak, frantsestasuna. Irakasle garenontzat pozoi goxoa da nolabait, ikasten duenarentzat infernua. Lana baita, aurreiritziak puskatzea doakigu urtez urte, berritzea, azalpenetan hamar bider higitzea, egokitzen joatea, ahalik eta hurbilenera joatea laguntzera. Inor ez daiteke ikasturte batetik onik atera.

Bada atsegin puntu bat. Lan egiteko behar zirenak oro eskura eduki ditugu: paperak, sarea, pertsonak, gogoak, ipar bat, motiboa eta amodioa, denbora. Partekatu ditugu gauzak elkarrekin, gramatika buruhausteak noski, ateraldiak ere, euskaldunengana joan eta altxor batzuekin topo egin dugu, txiste txarrak kontatu, basoak ipurdiraino hustu eta zinemaldietara joan gara. Euskara irakatsi diegu, ikasi dute. Eta hori baino gehiago eman zaie eta hartu dute: ingurumen bat ikusarazi diegu, hor ibil daitezen, jende sareez ohartarazi horietan erro daitezen, gure herriaren historia helarazi diegu hartaz jabe bihur daitezen, gure artistek sortzen dutenaz jardun dugu goza dezaten, agian sortzaile bihur, bizimolde bat eta harremantzeko

molde bat transmititu nahi izan diegu. Aitor dezadan, erran ditzadan hitzak, agian bekatu zaizkizuen horiek: balore batzuk, etorkizun enbeia bat eta gure herri grina haiena sendi dezaten ahalegindu gara, bihar euskal hiztun izateaz gain euskal herritarrak ere izan daitezzen.

Urtez urte ikasleak iragaten dira eta sentipen arraroa nagusitzen zait. Zerbait harturik joan dira. Nihaurek eskaini diedana da, nahitara partez eta bestalde parte bat bada haztagaitza, nahigabea, ez dena ez denboratan eta sosatan neurtzen. Haien hitzetan diote baietz, aberatsagoak direla. Ez naiz horregatik pobreagoa. Deskribagaitza da, ez da eskas bat, ez zama bat, ez zait sekulan itzuliko, ez dut berreskuratuko, gogo onez eskainia eta begiak dir-dir jasoa da eta eramana. Ibili dira, lortu dute, eta azterketak gainditzeak ez du deus ikustekorik horretan.

Egiten dugun lana irudikagaitza da. Helduen euskalduntzearen arloan lan egiten dugunok, errekonozimendurik sekulan izatekotan ikasleek egin duten ibilbide horretan kausitzen dugu. Gure lanbidea munduko ederrena agian ez, baina herri honetako aberatsenetako bat da humanoki. Iraila arte. ●



AIINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Sinetsirik

Lehengo ekainaren 19an, Nafarroako Parlamentu berria eratzeko bilkuran ari zen bitartean, pareko espaloian, 25-30 bat gizon ageri ziren pankarta baten giblean. Ez ziren preso senideak, ez kolokan dagoen enpresa bateko langileak, ezta etor litekeen gobernuarekin kezkatutako euskaltzaleak ere. Pankarta hitz gutxikoa zen: “*Quere-mos el canal*”. Haren inguruan, Erriberako nekazariak, haserre, Nafarroako ubidea beren lurretara ez baita oraindik ailegatu.

UAGN sindikatuak deituriko elkarretaratzea zen. UAGNk, ordea, ederki daki zorioneko ubideko ura ailegatuko dela, goiz edo berant, nekazari horien lurretara. Bertzeak bertze horretarako aritu baita lanean Uxue Barkosen gobernuak. Kostu gehiegizkoa zela eta UPNk eten zuen proiektua berrabiatu eta, bertzelako konponbide tekniko merkeagoa eman ondoan, bideragarri egin du legealdi honetan Manu Ayerdi kontseilariaren departamentuak. Berantetsiak egoteko eskubidea bazuten, beraz, Sarasate pasealekuan bildutakoek. Ez haserre.

Nekazari horiek, ordea, dudarik ez zuten: Barkosek geldiarazi du, lau urte hauetan, Nafarroako Ubidea. Bilduren eta Podemosen exijentziak ontzat hartu dituelako. Erriberari gorroto diolako. Nafarroako bideragarritasun ekonomikoaren

kontra ari delako. Badakizue, zenbat eta pobreako aiseago Euskadin. UPNk, berriz eta PSNk, eta PPK ubidea eskatu baizik ez du egin, Barkosen lehendakariaren lehen egunetik beretik.

Zenbait urteren buruan, Nafarroako lau urte hauek ikertzen direnean, errealitatearen manipulazioari eskaini beharko zaio kapitulu oso bat. Oposizio alderdiek zein erraz bihurtu duten gezurra egia. Nola erabili den botere mediatiko guztia errelato bat sortzeko, hainbat alderditan, benetan gertatzen ari zenarekin deus ikustekorik ez zuena. Eta zein txepel, zein trakets, erantzun zaion komunikazioaren aldetik bonbardaketa horri.

Nire lagun erdaldun bat oposizioak prestatzen ari da lanpostu finkoa izateko, Foru Administrazioa bulegari. Ehundik gora lanpostu. Dozena bat euskaraz. Deialdian idatzia dago, baldintzetan, ez dago horren inguruan espekulaziorik egiteko biderik. Lehengoan asaldaturik etorri zitzaidan, ordea. Ezagun batekin kalapitan ibilia zen. Nonbait, suturik zegoen lanpostu guztietarako euskara eskatzen zelako. Maiatzaren 26an, nafar aunitz eta aunitz boto ematera joan zirenean, sinetsirik zeuden ezinezkoa zela Nafarroako Administrazioan euskaraz jakin gabe sartzea. Egia izan balitz, bederen. ●



BEÑAT SARASOLA
IDAZLEA

Chernobylenak

Ez da hilabete telebistako *Chernobyl* seriea bukatu dela, eta dagoeneko badirudi hari buruz esan zitekeen guztia esana dagoela. Hitz egin da seriean erabilitako hizkuntzaz (ingeleza, errusiera beharrean), hitz egin da Sobietar Batasunaren sistema politiko autoritarioaren inefekziaz (Iñigo Errejón), eta dagoeneko, turistak zentral malapartatua zegoen lekura hasi omen dira ailegatzeko selfieak ateratzera. Ez da baztertzekoa laster haietako ren bat erradioaktibitateak jota osasun arazoak edukitzea, baina osasunak baino gehiago balio du, esan gabe doa,

norbere buruaren aupatze publikoak.

Niri deigarri egin zaidana haxe da: historiako desastre handienetako batean nola egin zuten askok eta askok ezer gertatuko ez balitz bezala, nola inor ez zen histeriak jota ibili, “lasai, ez da ezer gertatzen” esan eta hori sinetsita performatzeak, errealitatean benetan ezer ez gertatzea eragingo balu bezala. Egia esan, egungo gure gizartetik, non, edozein ezusteko leunen aurrean, alarma laranja, gorri eta gorri-gorriak izendatzen diren, txunditzekoa iruditzen zait gizarte oso baten pose hieratik hori. ●

Sortzaile profesionalik gabeko euskal kultura?



**GOTZON BARANDIARAN
ARTEAGA
IDAZLEA**

Hogeita bost urteko ibilbideagatik, euskarari eta euskal kulturari egin-dako ekarpenagatik, euskal jendar-tean duen eraginagatik zein nazioartean lortutako oihartzun izugarriagatik saritu duten egunean argitaratu da egunkari bateko lerro-buruan musikari profesionalaren aldarria: “Oraindik ez dugu musikaria langile bezala tratatzen”.

Bere sormen lanetik bizitzeko aukera duen bakarrenetako baten aierua da. Gure herria bere sortzaileei eta bere kulturegintzari bizkar emanda bizi dela islatzen duen pisuzko beste adibide bat. Idaztetik, kantagintzatik, bertsoan egitetik, aktuatzetik, margotzetik, dantzatzetik bizi nahi duenak ez du aukerarik merezi? Amateurrismoaren zilegitasunaren, duintasunaren eta kalitatearen aldeko aitortza eginik, ukatu egingo diogu gure kulturari sortzaile profesionalak izateko aukera?

Orainaz ari naiz eta 2050az. Ezen, konponbide estrategikorik adostu ezean, hogeita hamar urte barru litekeena baita euskal kulturak sortzaile profesionalik ez izatea. Ez soilik baina batez ere euskara langai dugun sortzaileon etorkizunaz ari naiz. Izango da, agian, Musikenen ikasketak amaitu eta bizimodua Bartzelonatan aterako duenik, izango da, apika, Dantzertiko lezioei Hamburgoko ballet konpainiaren batekin taularatuz errenta aterako dienik. Baina euskaraz idaztetik, antzetzetik edota kantatzetik bizitzeko

Baina gaur, orain eta hemen, egoerak nabarmen egin du okerrera. Lanbide gero eta gehiagotan pairatzen dugun prekarietatea salatzen duten ezkerreko alderdi politiko zein eragile sozialentzat, kulturegintzan ari garenon prekarietate endemikoa ikusezina da

aukera izango duenik? Berriz diogu, euskal kulturaren erronka nagusia gaur, orain eta hemen zaleak sortzea da eta zaleak sortzeko ekosistema legeztatu proposatzen dugu: zaleek, sortzaileek, antolatzaileek (herri ekimenekoek, publikoek, industriakoek), kazetariak eta hezitzaileak (hezkuntza arautukoek, ez-arautukoek, gurasoek). Ekosistema horretan guztiok gara ezinbesteko, sortzaileok, zer esanik ez.

Bizitza laborala sorkuntzari emanak bideratzeko hautua egin zuten aurreko belaunaldikoek maiz gogorarazten digute ez dutela prekarietatea besterik ezagutu. Bizi izan zituztela urte batzuk, zeintzuetan euskaldunek euren kulturari erreparatzen zioten ingurukoek baino gehiago,

zeintzuetan bertoko antolatzaileek bertoko ekoizpena lehenesten zuten, zeintzuetan erakunde publikoetan kulturarekiko ardurak zituzten politikariek euskarazko kulturegintza hobesten zuten. Baina gaur, orain eta hemen, egoerak nabarmen egin du okerrera. Lanbide gero eta gehiagotan pairatzen dugun prekarietatea salatzen duten ezkerreko alderdi politiko zein eragile sozialentzat, kulturegintzan ari garenon prekarietate endemikoa ikusezina da.

Horregatik ez dugu, berbarako, Euskal Artisten Estatuturik, horregatik ez dugu, adibidez, Euskal Kulturaren Legerik. Urteak egiten eta aldarrikatzen, ekiten eta proposatzen ari garen euskararen langile autonomoak elkartzen hasi gara. Langiletzat har gaitzazuen. Ez gara lehenak, gure aurretik izan ziren Lasturko Milia, Asteasuko eta Segurako itsuak beren gitarrekin, Asteasuko eta Segurako itsuen emazteak beren panderoekin, Etxahun, Iparragirre, Bilintx, Maria Luisa Petriarena, Txirrita, Mendaro Txirristaka, Orixe, Errose Bustintza, Inazia Zabalo, Rikardo Arregi, Xabier Lete, Elgeta, Maurizia, Gabriel Aresti aldian aldiko euskararen langile autonomoak izan ziren. Halakoak zirelako kontzientzia handirik gabe, seguruena, gehienak. Baina denak ere inolako aitortza profesionalik gabe bizitakoak: alprojak, alferak, arloteak, neskabanderak, bardoak, artistak, poetak. Haien ondorengoak gara. Izango ahal dugu guk ondorengorik. ●

 **ARGIA**

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



EHZ

arnasgune biziberritua

✂ GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA 📷 DANI BLANCO

“Ez dut sekula hainbeste jende ikusi herrian, ezta hain giro ona ere”. Ezin izan dit gezurrik esan Irisarriko okinak, bere irribareak salatuko zuen bestela. Nafarroa Behearen bihotzean dagoen herri hau EHZ festibalaren topaleku bilakatu da asteburu batez; tabernek euren barrak luzatu dituzte herriko plazara eta zenbait guneko publiko

festibalean erabili dira. Behin plazako ekin-tzak amaitutakoan, tabernek ere itxi egiten dute jendea pentzera bertara dadin kontzertuak ikustera. Euskal Herriko festibalik zaharrena da EHZ eta azken urteetan desgertzearekin egon da. Belaunaldi berriak, eguraldi onak lagunduta, lortu du auzolanean proiektua berpiztea.



GIRO GOXOA PLAZAN. EUSKAL HERRIKO TXOKO GUZTietatik gerturatu da jendea irisarrira ehaz berpizteko.

Nola ez gara bada pozik egongo?”, gehitu du okinak elkarriketarekin jarraituz, eta une batez festibala eta turismotik bizi diren herriak parez pare jarri ditut neure buruan. Ez dago, baina, inolaz alderatzerik. Herriko plazako lau tabernez gain, boluntarioei esker aurrera ateratako postuetan saltzen diren produktuak Irisarrin edo inguruetan ekoiztuak dira, taloetatik hasi eta goizeko ordu txikitik zerbitzatzen den garagardoraino. Ukaezina da EHZ festibalak herrian izan duen inpaktu ekonomikoa, baina zailantza gehiago piztu zezaketen bestelako balioak gauzatzeak –bizilagunekiko errespetua, adibidez–. Hargatik, okinak “giro ona” esan izanak poztu nau gehien, izan ere, festibala festa girotik bizi ez duen batek hori esan izanak balio handia du. Eta are gehiago barruan aritu garenok ere hala bizi izan badugu.

Goizeko lehen ordutik martxan dira makina bat bolondres-talde, tartean Brigada Berdea –hauek arduratzen dira garbiketaz–. Garbitzeko premia izango dute ziurrenik komun gehienek, edo garbitu baino, hornitu beharrean egon-

go dira; zerrautsez hornitu beharrean. Apur bat txukuntzea ere ez zaie bate-re gaizki etorriko; hondakinak kontainerrean hustu eta listo. Hego Euskal Herriko festa guneeetan sekula topatu gabeko komun-sistema aurkitu dut bertan, bestelako eredu bat: komun idorra edo ekologikoa. Zerrauts multzo eta pota bat eskueran, eta ez besterik; ezta hondakinak kimikoki tratatu ostean araztegi bidaliko lituzkeen ur eta hoderik ere. Taza eta papera ditu, baina beste antzekotasunik ez ohiko komun estilotik. Kiratsa ekiditeko modu bikaina da gainera, zerrautsak betetzen baitu funtzio hori.

Aipagarriena, komun hauek ez direla ez erosiak ezta beste norbaiti eskatuak ere: EHZko kideek duela zenbait urte egindakoak dira. Ipar Euskal Herriko beste ekintza askotan ere erabili izan dira komun hauek, ganoraz erabiltzeko prest dagoenari uzten baitizkiote, hala azaldu du antolatzaileetako kide Iratik. Jardun honek ezin hobe erakusten du zer den baloreak praktikan jartzea: ekologismoa, autogestioa eta beste era-gileekin lankidetzat.

TRANTSIZIOTIK ERABERRITZERA

1996tik ospatu izan da Euskal Herria Zuzenean festibala, urtez urte, 2014an lehen kolpea jaso zuten arte: ekaitz batek jaialdia hondatu eta zulo ekonomiko larria sortu zuen. 2017. urtean esan liteke hondoa jo zuela EHZk: festibalaren atarian, iragarpen meteorologikoei eguraldi oso txarra aurreikusi zuten eta, hala, jaialdia bertan behera uztea erabaki zuten galera handiagorik ez izateko. Barne-lanketa prozesu sakonean murgildu zen orduko taldea: *crowdfunding* kanpaina abian jarri eta denbora gutxiren buruan bildu zuten zuloa estaltzeko behar beste diru. Zuloa ez zen, baina, arlo ekonomikoan bakarrik gelditu.

2017 eta 2018 urteetan taldeak go-goeta fase bat ireki zuen elkarteak bere burua birdefinitu zezan. Festibalarentzat hil ala biziko biltzar nagusi bat egin zuten Baionako Zizpa gaztetxean, ordura arte aritutakoen eta belaunaldi berrien asmoak aski ezberdinak izateak bultzatuta edota behartuta. Bertan adostu zen lekukoa ematea, beteranoen ardurak uztea eta gazteek aginte-makila hartzea. Talde berriko kideek barne lanketa sa-



500 lagundik gora aritu dira festa eredu honen alde auzolanean. horri esker, posible izan da EHZ festibala biziberritzea, azken urteetan jasotako kolpeen ondoren

kon bat behar zutela ondorioztatu zuten, eta ez hala-moduz, presiopean-edo, festibala antolatzea egite hutsagatik. Erabaki zurruna izan zen: 2018an ez zen EHZ festibalik ospatuko; bai, baina, alternatiba gisa, EHZ Nomada. Hiru egunez, hiru herritan barrena barreiatu zuten festa: Baigorri, Baionan eta Itsasun. Trantsi-

zio garaian zegoen taldea, bere burua aurkitu nahian ariko balitz bezala.

Zin egin zuten 2019an bueltan izango zirela, eta martxoan eman zuten jakitera Irisarrin antolatuko zutela aurtengo edizioa, ekainaren 28, 29 eta 30ean. Eraberriturik itzuliko zirela ere hitz eman zuten, baita bete ere; berrikuntzak izango zirela formatuari eta helburuei dagokienez. Bi ardatz nagusi ditu egungo EHZ eraberrituak: eduki politikoa eta kulturala. Kontzientzia euskaltzaleaz gain, eragileetako gazteei borrokarako tresna bat ematea da lehen helburua; eta bestetik, EHZren balioekin bat, kultura hegemonikotik haragoko eskaintza kultural anitza izatea. Beti ere, euskal kultura eta kultura herrikoia lehenetsiz.

Talde berriak aurtengo ediziorako berrikuntzak ekarri ditu, eta horietako

nagusiena, aurrez aipaturiko lehen ardatzarekin bat eginez, tailerrak izan dira. Festibalaren tarteko eguna, larunbata, baliatu zen horretarako; bost eskaintza luzatu zituzten aparteko egitarauan: lagun artean eta oro har ematen diren eraso sexisten ingurukoa, festa ereduaz hausnartzekoa, G7k abuztuan Biarritzen egingo duen goi-bilerak gizartearen duen eraginari buruzkoa, autogestioa eta auto-antolakuntzaren ondorio politikoen ingurukoa, eta migratzaileei Euskal Herriko txoko ugarian egiten zaien harrera ardatz duena. Teoriara mugaturiko ideiak baino, eztaba-idea saioetara eta hausnarketara bideratzen ahalegindu dira, tresna gisa ulerturik.

GUZTIONTZAKO EUSKAL OASIA

Baxenabarren barrena, frantsesa entzun eta kartel frantsesak maiz ikusi dituen



edonork, adin-tartea edozein delarik, esango zukeen Irisarri lurraldeko oasi moduko bat dela; kultura eta gizarte zapaldu baten arnagunea. Gazteen eskutik sortua, baina guztientzat ekoiztua. Eta denen artean eraikia. Herri-oasi bat, zeinetan ia guztia euskaraz entzun ahal izan den, punta bateko zein besteko euskaraz gainera.

Gazte, ez hain gazte, haur, heldu eta guztiei zuzendutako eskaintza oparoa topatu dugu Irisarrin. Aldapa igotzen hasi bezain pronto, haurren txokoa: parke zoragarri bat zaindutako belardi batean. Igandean bertan aritu dira jolasean dozenaka eta dozenaka haur, egitaraua aldeko izanik –antzerkia, haurrei zirku tailerra, puzgarriak...–, hara joandako familia askok egin baitute hautua bertaratzeke.

Egitarau luze eta zabala prestatu dute EHZko kideek. Momentuko euskal talde erreferenteenetakoak Plazako eta Pentzeko oholtzatik pasatu dira hiru egunetan: Liher, Koban, Gari, Anari, Willis Drummond eta Iseo&Dododsound, besteak beste, baita ibilbide laburragoa izan arren entzuleen arreta piztu duten euskal taldeak ere, Alba edo Ibil-Bedi kasu. Estilo aldetik bat bestea bezain ezberdina, baina aldi berean, gehientsuenek bazuten antzekotasunik: euskara. Kontzertu eta ikuskizun erabat ezberdinak kausa berdin baten alde.

500 lagundik gora aritu dira festa eredu honen alde lanean, auzolanean. Festibalak hiru egun irauten duen arren,

hiru astera luzatzen da muntaketak eta desmuntaketak barne. 500 boluntario. Horietako asko asteburuan zehar baino ez ziren aritu; edonolako txandak, eramangarri zein ez hain eramangarriak, betetzen. Beste askok, aldiz, urte osoa pasa dute hiru egunetako une bakoitzeko zereginak pentsatu, egitaraua osatu eta ekintza oro ongi gauzatzeko behar beste estres, urduritasun eta izerdi botatzen. Eta ez Irisarrin bakarrik: kontaezina da Euskal Herriko zenbat txokotan dagoen halako mugimendua. Izugarria

da zenbat festa, ekintza, edota asteburu pasa antolatzen diren musutruk, borondatez, militantziaz, bihotzez. Eta inoiz gutxitan ikusarazten dira halako lanak.

Asteburuan eraikitako euskal oasi honi Irisarrin amaiera eman zaion arren, Ipar Euskal Herrian euskal kontzientzia garatzen eta zabaltzeaz arduratuko den elkarte aski indarberriturik dagoela nabaritu da. Motibazioa oztupo guztiak gailentzeko beste dela ikusi dute. Urte luzez gazteriari leial izateko asmoz datoz, antza denez: geratzeko etorri da EHZ.



“Euskal Herria harrera herri izan behar da”

Bi urteko geldialdiaren eta talde aldaketaren ostean, EHZren berrikuntzarik nabariena eta landuena tailerren ezartzea da ziurrenik. Artikuluan aipatu bezala bost bloketan banatu dituzte, denak larunbatean, goiz eta arratsalde: eraso sexistak, festa erdua, G7, autogestioa eta migrazioa. Azken honetan sartu du muturra ARGIAk, goizeko saioan. Migrazioaren azken urteotako testuingurua eta honi erantzuteko sortu diren elkartasun sareak aztertu dute Baionako Etorkinekin elkartearekin, Gernikako Eztenarekin eta Artea herriko proiektu eta kolektiboen parte hartzearekin. Ipar eta Hego Euskal Herriko praktikak eta ikuspegiak jomugan jarritz, Euskal Herrira iristen diren etorkinen inklusioaz mintzatu dira oro har.

Urte luzez, Afrikatik Europarako bidea Italiatik egin izan dute etorkin gehientzuenek, baina Europar Batasunak Mediterraneo itsasoan –batik bat Adriatikoa– ingurumarian ezarritako politikek oztopoak eragin eta norabidez aldatzera behartu ditu Europara datozen pertsonak; Espainiako Estaturako bidea hartzen dute, eta handik, Euskal Herritik pasatuz, Frantziako Estatura pasatu asmo dute Europara zabaltzeko. Horregatik dago aspaldiko mugimendu handiena Irun eta Hendaiaren artean, hala azaldu du Etorkinekin elkarteko Amaiak.

Hiru urte eta erdiko bizia du Etorkinekin. Baionan –bertan dago harrera zentroa–, Angelun eta Biarritzen egiten dute lan, eta batik bat, adin txikiko etorkinen gizarteratze eta etxekotzean aritu dira. Amaiak, adibidez, etxean hartu ditu zenbait etorkin eta errefuxiatu. Lehen unetik adierazi du administratiboki alde nabarmenak daudela Frantziako eta Espainiako Estatuaren artean, azken honek eskumen eta aukera zabalagoak uzten dituela-eta; hotz, ez duela Frantziako Estatuak duen zorrotasuna. Dena den, bi lan-ildo argi bereizi dituzte talde barnean: sentsibilizazio ekimenak antolatzea eta instituzioekiko salaketa lan-taldea. Erakundeei ardura handiago eskatu behar zaiela dio Amaiak, batik bat, halako arazo puntualetan eragina izan dezaketen tokian-tokikoei: “Ez dugu sinesten erakundeen jardunean,

nahiz eta tokiko instituzioek baduten ardura garrantzitsua”.

Gernikan kokatzen den Eztena proiektuko Asierrek argi du beste eragileekin lankidetzan aritu beharra. Herriko gazte asanbladatik sortu zen iaz Eztena. Eraikin bat apirilean okupatu arren urrian eman zioten oraingo erabilera, Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak Bilboko etorkinen egoera larria ikusirik. Bilbotik Gernikara bideratu zituzten zenbait errefuxiatu, baina ez soilik harrera eman eta zaintzera; Asierren ustez giltzarria hemengo bizimodura ohitzea da, eurekin elkarlanean jardun eta integratzera. “Ez gara sorospenerako zerbitzu, elkarlanean euren bizi-baldintzak hobetzea da gure xedea”, dio Asierrek.

Arazoa, baina, Mendebaldeko herrialdeetako bizi-erritmo altua dela uste du, eta horrek zailtasun handiak sortzen dituela bien aldetik bateraketa bat ematerakoan. Harrera eman bai, baina autonomoak izatera bultzatu behar dira, beraiek ere parte diren proiektuan emaila ere izan daitezen: “Hemengo bizimodura moldatu ahal izateko autonomia garatzen badute eta eurek ere proiektuan inplikaturiko balira, guri ere arnasa emango ligukete, eta gainera, gero etorriko lirakeen errefuxiatuekin erlazionatzea errazagoa izango litzateke”.

Arteako proiektuko Malu ere bat etorri da Asierrekin: “Erakunde publikoetatik

kanpo lan egiten ahalegindu gara gu, baliagarriagoa izango zaigulakoan”. Administrazioarekin talkak izan dituztela aipatu eta adibidetzat jarri du Guatemalatik etorritako emakume baten kasua: herriko emakumeei berak dakien erara josten erakusteko tailerrak antolatu zituzten Artean, baina Udalak arazoak jarri zituen. Horren aurrean erantzun egin zuten: “Azken finean, marra desobediente horiek igaro behar dira eraikitzeko”.

Familia etorkinak hartu dituzte gehienbat Bizkaiko Artea herrian, eta saiatu dira batik bat, helduekin are zailagoa izanik, haurrei independentzia eman eta herrian errotik integratzen. Eskolara eraman dituzte horretarako baimena duten haurrak, baina guztientzat antolatzen dituzte astean birritan bestelako klaseak. Apurka-apurka, epe luzera begira, pertsona horiek gizartearen parte eta giltzarri izatea da euren xedea. Dena den bakoitzari egokitu behar zaiola adierazi du Maluk, norberak helburu ezberdinak ditu-eta.

“Euskal Herria harrera herria izan behar da”, berretsi dute hiruek. Askorentzat oraindik etorkinak ikusezin direla eta horretarako, sentsibilizazio programak eta salaketak funtsezkoak direla aipatu dute. “Berebizikoa da gizarteari geure ateak zabaltzea eta geure bizitzeko modeloa bajatzea”, dio Amaiak. ●





“Subjektu politiko berri bat ari da eratzen etxebizitzaren problematikaren inguruan”

LISA VOLLMER

Errentarien mugimenduko ekintzailea eta ikerlaria

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA
IBAN AGINAGA

Weimar-ko Bauhaus Unibertsitateko Europar Ikerketa Urbanoen Institutuan lan egiteaz gain, *sub\urban. zeitschrift für kritische stadtforschung* (sub/urbano. Ikerketa urbano kritiko aldizkaria) aldizkariako erredakzio taldeko kide ere bada Lisa Vollmer (Radolfzell, Alemania, 1987). Berlingo errentarien mugimenduko kide gisa urteetako ibilbidea du atzean, eta Alemania luze-zabalean alokairuaren bueltan sortutako mugimendu eta protestak gertutik ezagutzen ditu. Ezagun duen errealitate hori ikerkuntza esparrura eraman eta Berlin zein New York-eko errentarien mugimenduak aztertu ditu doktoretza tesian. Ikerketa horren bidez egindako zenbait aurkikuntza plazaratu ditu argitaratu berri duen *Strategien gegen Gentrifizierung* (Gentrifikazioaren aurkako estrategiak) liburuan, Katakarak argitaletxeak gaztelaniara itzuli duena.

Gentrifikazio prozesuak aztertzen aritu zara. Prozesuok bultzatzeko klase ertainaren sustapena egiten dela diozu.

Gentrifikazioa hiri kapitalistaren testuinguruan eta hiriaren produkzio kapitalistaren logikaren baitan ulertu behar da. Berau ikertzeko, higiezin enpresei behatu behar zaie, irabaziak lortzen baitituzte gentrifikazio prozesuen bidez. Bestalde, udalak ere estuki lotuta daude higiezin industriako *lobby*-ekin, hauen interesei erantzuten baitiete, ustelkeria praktiken bidez kasu. Udalen interesak jende aberatsa erakarri eta txiroak desplazatzean datza, gentrifikazioak udalerrira dakarren populazio aberatsagoak zerga gehiago ordaintzen dituelako, eta zergen bidez irabaziak lortzen direlako. Hori baita gentrifikazioa: jende aberatsagoaren bidez, jende txiroa desplazatzea.

Klase ertainaren sustapen horrek bizi-estilo jakin batzuk sortzen ditu, sarri askotan gentrifikazioaren erreduntzat jotzen direnak: artistak, hipsterrak, etab. Alabaina, zuk gentrifikazioaren adierazpide besterik ez direla defendatzen duzu.

Aipatu dituzun talde edo subjektu horiei errua bizkar gainera botatzeak arreta benetan garrantzitsua den horretatik desbideratzea dakar. Dinamika horren atzean estrategia bat dago, zenbait talde sozial erruduntzen dituen eta tentsioa eztabaida moral batera mugatzen duena. Eztabaida horrek, gentrifikazioaren atzean dauden interes eta egituretan erreparatu ordez, jendearen praktikak seinalatzen ditu, eta horretan oinarrituz bilatzen ditu errudunak.

Argi izan beharko genuke kolektiboak ez direla arazo printzipala, baizik eta gentrifikazio prozesuen biktima. Adi-



LISA VOLLMER


ESTRATEGIAS CONTRA LA
GENTRIFICACION

• POR UNA CIUDAD DESDE ABAJO •

Prólogo
Irene Sabón Muriel



katavon



Jendea esku-argiekin Berlingo Kreuzberg auzoko gentrifikazio prozesuaren aurkako ekintza batean. "Boterea errentarientzat" irakurri daiteke etxebizitza itxurako esku-argi batean.

bidez, erruduntzat jo ohi diren artistek nahi dutena beren lana egitea ahalbidetuko dien toki merkeak dira, eta zenbait tokitan gentrifikazioaren aurkako mugimenduetan parte hartzen dute. Are gehiago, aktibo baliotsua dira mobilizazioak dibertigarriagoak eta koloretsuagoak bilakatzen dituztelako, eta tresna dituzte mugimenduentzat baliagarri izan daitezkeen narratibak sortzeko.

Auzo bateko biztanleak auzotik kanporatzea gentrifikazioaren funtsa izanik, gentrifikazio prozesu baten abiarazle izandako klase ertaina ere prozesu beraren bidez kanporatua izan daiteke luzera begira. "Supergentifikazioa" deitu diozu zuk fenomeno horri.

Hainbat etapa ditu gentrifikazio prozesuak, desplazamendu olatu ugarirekin. Aipatu artistekin abiatu daiteke, edo ikasleekin, baina era berean hauek ere kanporatuak izan daitezke. Desplaza-

mendu prozesuaren lehen kate-begia izandako klase ertaina aberatsagoa den klase ertain baten bidez desplazatua izan daiteke, eta era berean bigarren sektore hau klase altuak kanporatu dezake. Alemanian, adibidez, errealtatea hemengoaren oso bestelakoa da, jende asko da alokairuan bizi dena, baita klase ertainari dagokionez ere. Hala bada, prozesu hauek erasan egiten ditu.

Guzti honek zer lotura dauka turismoarekin?

Turistifikazioaren eta gentrifikazioaren eraginak banaezinak dira, eta hiru eremutan antzeman daiteke bien arteko erlazioa. Batetik, bertakoen etxebizitzak etxebizitza turistiko bilakatzea eragiten da, Airbnb gisako enpresen jardunaren bi-

dez argi antzeman daitezkeen modura. Bigarren, gentrifikazio ekonomikoari ematen zaio bide: turistek eta auzora heldu berri den klase aberatsagoak beste saltoki mota bat bultzatzen dute,

ordura arte bertako dendak izandakoak desplazatuz. Bestalde, turistek eta bertako bizilagunek egiten duten espazio publikoaren erabilera ezberdinek ere gatazkak sortzen dituzte maiz.

"Hainbat etapa ditu gentrifikazio prozesuak, desplazamendu olatu ugarirekin"

Egunerokotasunaren turistifikazioaz ere mintzo zara: geroz eta gehiago, norbanakoek beren hirian bertan turista

bezala jarduten dutela diozu. Nor da subjektu turista?

Galdera zaila da erantzuten. Akademian termino bat hedatu da: neoturismoa. Izan ere, gaur egun turistek ez di-

tuzte bilatzen soilik toki bateko puntu seinalatu edo turistikoak, tokikoak eta autentikoak diren lekuak ere bisitatu nahi izaten dituzte. Era berean, turismoaren jo puntu diren hirietako biztanleak dinamika berarekin beste helmuga turistiko batzuetara bidaiatzen duten norbanakoak dira. Eta horrek zaildu egiten du turista nor den eta nor ez den ezberdintzea.

Bestalde, sarri zaila da turista nor den zehaztea. Adibidez, ekonomia krisiarekin italiar eta espainiar asko Berlinera lekualdatu ziren, eta halakoetan zaila izaten da zehaztea zein den turista eta zein bertakoa. Turista eta tokikoen arteko bereizketa ez litzateke oinarritu behar norbanakoen arteko desberdintasunetan, baizik eta horiek egiten duten espazioaren erabilera eta kontsumo praktika ezberdinetan.

Airbnb non, turistifikazioa han.

Etxebizitza turistikoen aferaz asko ari da eztabaidatzen Alemanian, eta joera honen aurrean zenbait politika bultzatzen ari dira administrazio publikoak ere. Berlingo Udalak, adibidez, debekatu egin du pisuak etxebizitza turistiko bilakatzea. Arazoa da ez dutela neurria gainbegiratu duen inor kontratatu, eta ondorioz ez dago indarrean jarritako neurriaren inolako ikuskapenik.

Lege hau indarrean jartzearekin batera, Airbnb enpresak hiri osoan zehar kartelak jarri zituen. Horietan, hainbat pertsona ageri ziren ondokoa bezalako aipuen ondoan: "Nire auzoa oso anitza da, baina orain ez didate uzten nire logela alokatzen". Karteletan azaltzen zirenen gehiengoak azal kolore eta etnizitate anitzetako jendea ziren, alemaniarrek ez ziren abizenak zituztenak. Hala bada, enpresak etxebizitzak pisu turistiko bilakatzeko debekuaren gaia desbideratu, eta arrazakeriatzat jo zuen.

Etxebizitzaren inguruko problematikaren aurrean, hiria behetik eraikitze beharria azaleratu da. Esango zenuke etxebizitzaren aferak politizatu eta kolektiboan jartzen duen errentariaren subjektu politikoa sortzen ari dela?

Etxebizitzaren aferak dezenteko oihartzuna izan zuen Berlinen 2000ko hamarkadaren erdi aldera, eta errentariak elkartek sortu zituzten. Horiek

bultzatutako ekimen askok aurre egin zieten alokairuen prezio igoerei, eta etxebizitzaren aferak politizatu ziren. Ordura arte, hogeitaz bat urtez, apenas eman zen etxebizitza eskubidearen bueltako eztabaida politikorik.

Errentarien ekimenak askotarikoak dira, eta talde anitzak barne hartzen dituzte: jatorri eta adin ezberdinetako jendea, migratuak eta ez dutenak, esperimentzia politikodunak eta gabeak... praktikan subjektu politikoa berri bat ari da eratzen, muga eta problematika ezberdinek gurutzatzen dutena.

Zure arabera, hiru zutabe daude etxebizitza politika neoliberalaren paradigma errotoz ateratzeko.

Bai, ondokoak: eskuragarritasuna, demokratizazioa eta desmerkantilizazioa. Gentrifikazioa etxebizitza politika bat denez gero, eskuragarritasuna oso garrantzitsua da, etxebizitzak behe klaseko jendearentzat eskuragarri izan daitezen. Horretarako alokairu prezioen sistema irmoki erregulatzea behar dugu, prezioak oso altuak izan ez daitezen. Baina etxebizitza merkatuaren funtsa onurak direnez, etxebizitza desmerkantilizatu beharra dago. Eraikin publikoak eraiki behar ditugu; edo etxebizitza pribatuak erosi publiko bilakatzeko xedez, eta etxebizitza kolektiboaren sektorea hedatu, etxebizitza kolektibo proiektuak eta kooperatibak kasu.

Norbanakoak auzogune berrien eraikuntza prozesuen parte izan daitezen, planifikazio prozesuak demokratizatu behar dira, baita etxebizitza hornitzea ere. Panorama neoliberalaren baitan, etxebizitza konpainia bat publiko izateak ez du ezinbestean bermatzen alokairu arazo izkoko edo merke bat, eta ez du ziurtatzen konpainiak mozkin aterako ez duenik. Errentariak konpainia hauen egituraren baitan baleude, egoera honi aurre egin ahalko litzaioke.

Eztabaidaezina dirudi etxebizitza eskubidea bermatuko duten legeak

egitera begira dezenteko prezioa egin behar dutela herritarrek. Zuk defendatzen duzun, udal gobernuak ahalduzko egitura gisa balio beharko lieke etxebizitza eskubidearen aldeko mugimendu sozialei.

Berez, Alemanian, kolektibo gehien goa horren kontrago, udal gobernuen kontraborroka egiten dute, denbora luzez gentrifikazio prozesuak eta politika jakin batzuk bultzatu dituztelako. Baina etxebizitzaren aldeko mugimenduak erlatiboki indartsuak

bilakatu direnez azken hamar urteetan, zenbait udalerritan aldaketak eman dira aspektu horri dagokionez. Mugimenduak inpaktu handiko kanpaina mediatikoak zituztenez, hainbat alderdi politikok etxebizitzaren aferak txertatu zuten beren hauteskunde kanpainenetan, etxebizitza eta hiri eskubidea promestuz. Esan daiteke gaur egun, zenbait tokitan, hartu-eman handiagoa dagoela herri mugimenduen eta udal gobernuen artean.

Bizitoki autogestionatuek hiriaren garapen kapitalistaren arrakalatan biziraun arren, aipatu garapen kapitalista suntsitzea lortzen ez dutela diozu. Hala ere, okupazioa helburutzat beharrean tresnatzat ulertzen badugu, ez litzateke baliagarri etxebizitza eskubidearen aldeko borrokarako?

Alemanian 80ko eta 90eko hamarkadetan okupatutako etxebizitzak geratzen dira, legalizatu dituztenak, jendeari etxebizitza eskuragarriak eskainiz. Baina zoritxarrez bertako bizilagunak ez dira ari errentarien mugimenduan parte hartzen. Azken urte hauetan okupazio saiakerak ere egon dira, baina arazoa zera da, dagoeneko ez dagoela lehen bezainbeste etxe huts, beraz konplexuagoa da orain. Horrez gain, Alemaniako okupazio mugimenduak ezker autonomo erradikalaren parte dira, eta dituzten okupazioaren inguruko narratibak partikularrak edo ezberdinak direla esan daiteke. ●

LANA

Glovoko *rider*-a, amets arteko zapalkuntza

Lau atalez osatutako sail bateko lehen artikulua da hau. Bertan, aztergai izango dira Glovo enpresaren negozio-eredua, baita bere ingurukoekin daukan harremana ere. Enpresaren irudi publikoa arretaz aztertu eta konpainiak *rider* deitzen dien dozenaka txirrindulari elkarrizketatu ondoren, lanari buruz duten iritziari eta egiatan ordaintzen dietenari erreparatuko diegu artikulua honetan. Nahiz eta Glovok askotan esan langileei ederki ordaintzen diela, kostu guztiak kontuan hartuta argi ikusten da langileek gutxieneko soldataren azpitik kobratzen dutela.

EGILEA | PAUL IANO

ITZULTZAILEA | DIEGO PALLÉS LAPUENTE

ARGAZKIAK | DOS POR DOS / KAULDI IRIONDO

Glovorentzat lanean aritu naizela komentatzen dudak bakoitzean, lehen galdera beti izaten da: “Zer moduz ordaintzen dute?”.

Ez da erraza galdera garrantzitsu horri erantzutea. Zailtasuna ez datza bakarrik Glovo eta bere langileen arteko harremana ulertzean, soldataren kontzeptua bera ere arretaz aztertu behar baita.

Lan tradizioaletan, langileak lanorduen arabera soldata jasotzen du. Kopuru horri hainbat kostu kendu behar zaizkio, esaterako, lanera joateko gastatutako gasolina edo zenbait lanbidetan beharrezkoak diren tresnen erosketa.

Glovorentzat lan egitean gauzak ez dira hain errazak. Bertan hiru hilabetez lan egin ondoren, argi ikusi nuen *rider*-ek ezkutuko kostu asko ordaintzen dituztela eta horiek negozioaren funtsezko atal bat ostatzeko dutela. Kalitate oneko bizikleta eskuratu nuen hirian barna ibiltzeko, baina lehenengo hila-

betearen buruan dagoeneko birrintzen hasia zen: gurpilak dozena erdi bat al-diz zulatu zitzaizkidan, aurreko zein atzeko abiadura-aldagailuak nahaspila mekaniko huts bihurtu ziren eta, are okerrago, gurpilak etengabe deformatzen zirenez, balaztak gehiegi laxatzen zitzaizkidan eta istripua izateko arrisku handia izaten nuen. Azkenean, bizikleta berria erosi nuen eta, horrez gain, konponketak egiteko tresneria, argiak, bateriak, kapusaia eta euritako prakak ere erosi behar izan nituen. Baita matxurak konpontzen denbora mordoa eman ere. Oro har, hiru hilabeteren ondoren, aipatutako gastuengatik 476,02 euro ordaindu nituen; horren truke, 85,71 euro gutxiago ordaindu nuen autonomo kuotagatik, ez besterik. Bizikletak konpontzen eskarmentu handia izan ez banu, ehunka gehiago ordainduko nituzkeen ziur aski. Glovoko *rider* batek esan zidan, “jendeak argi ulertu behar du: Glovorentzat lan egitea garestia da”.

Hala eta guztiz ere, okerrago izan zitekeen. Bizikleta erabiliz bide erraza hartu nuen, askoz garestiagoa baita *rider* askoren alternatiba: motozikleta. Motorra erabiliz gero, gasolina, aseguru eta zergak ordaindu behar dira, matxurak konpontzea askoz garestiagoa da eta, gainera, ibilgailua etengabe higitzen da, jakina.

Ordainsaria kobratzean, *rider* gehienek pentsatuko dute “diru kopuru hori guztia irabazi dutela”, baina egia oso bestelakoa da. Benetako irabaziak dirudiena baino baxuagoak dira. LARRUN aldizkarian idatzi nuen *Glovolizazioa* erreportajea, horri buruz hitz egin nuen, eta harrezkero hainbat irakurlek nahastuta idatzi didate, Glovoren publizitateak baitio *rider*-ek hilean 1.000 euro baino gehiago erraz kobra dezaketela. *Rider* ohi batzuek ere idatzi didate komentatzeko hilean 2.000 euro inguru lor zitzaketela. Are gehiago, *La Razón* Espainiako egunkarian, *rider* ba-



tek adierazi zuen egunean sei orduz lan eginez 1.300 euro kobratzen dituela.

Hori guztia egia balitz, Glovon lan egiteak benetan ideia aparta lirudike. Baina funtsean gezur hutsa baino ez da: kobratutakoa irabazitakoarekin nahastu dute, nahita zein axolagabekeriaz. Istorio horietan ez da inoiz kontuan hartu lanarekin batera datorren inolako gasturik. Ordainagiriko zenbakiari baino ez diote erreparatu.

Ekonomia gigifikatu berri horretan langileen egoera behar bezala irudikatzeke, ahal beste Glovoko *rider* elkarri-rrizketatu beharko lirateke bakoitzaren irabaziaz eta ezkutuko gastuak konparatzeko. Horrela benetako soldata agertuko litzateke. Bada, horixe bera egin dut: dozenaka *rider*-ekin solastatu eta gero, batez besteko soldata orduko 5,33 eurokoa dela kalkulatu dut.

Neure esperientziak datu horrekin bat egiten du. Lanean efiziente bihurtzeko behar izan nuen denboraldia baz-

tertuta, soilik etekinik handienak lortu nituen asteak kontuan edukiz eta astean batez beste 40 orduz lan egiten nuela kontsideratuz —egiatan gehiago egiten banuen ere—, kalkuluen arabera 5,19 euro irabazten nituen orduko.

EGUN OSOKO LANA SOILIK BATZUENTZAT DA

Ziur aski, orain pentsatuko duzue: nork egin lezake lan hain gutxiren truke? Zergatik ez hartu beste edozein lan?

Langileen esanetan, arrazoiak sinplea da: “Ez dago besterik”. Glovoko *rider* kopuru erraldoia migratzaileak dira eta luzaro gorriak ikusi dituzte lan egonkor bat topatzeko. Batzuek hiru urte eman dituzte horrelakorik aurkitu gabe. Askok, gainera, ezin dute hemen legalki lan egin eta beste langileei eskatu behar dizkiete profil eta dokumentazioa lan egin ahal izateko. Glovok langileak ia gainbegiratzen ez dituenek, lan-lege-diaren oztopoak saihesteko bidea erraz

**Dozenaka *rider*-ekin
solastatu eta gero,
batez besteko soldata
orduko 5,33 eurokoa dela
kalkulatu dut**



aurkitzen dute; nik dakidanez, nire nagusia egoera horren jakitun zen uneoro eta jende horri oztoporik gabe lan egitea errazten zion. Migratzaileek *rider* guztien %50-70 osatzen dute, hiriaren arabera beti ere. Jende horrentzat, besselako lan-aukerarik topatzea oso latza edota ezinezkoa da. Bartzelonan, maizta amaieran, garbiketa kamioi batek harrapatuta lanean hil zen riderraren profila horixe zen: migratzaile etsi bat,

edonon lan egiteko prest.

Ikasleak dira beste langile-multzo nagusietako bat. Glovok batez ere langile mota hori lotu nahi du konpainiaren irudi publikoarekin. Gazte alai eta gogotsuak bizikleta gainean tarteka ordu batzuk ematen. Horiek langileen %30 dira nire esperientziaren arabera. Eta haiek ere ez dute egoera atsegin. Hilaren bukaerara heltzeko, “igandetik igandera lan egin behar duzu”, kontatu zidaten. Haien iritziz, Glovok askatasuna eta autonomia promesten ditu, baina gezur hutsa da: “Ez dut uste [Glovon]

Rider beteranoek astero 60 ordu inguru lanean eman behar izaten dituzte; kontratupeko langileak balira, egoera lotsagarri hori legez kanpokoa litzateke



askatasuna dagoenik. Ustezko askatasuna daukazu, bai, baina ondorioak dakarzkizun askatasuna da”. Glovori buruzko iritzia galdetu nionean, lanaldi partzialean dabilen *rider* batek bi hitzetan azaldu zidan: “Kaka putza da, kaka putz ustela”.

Aipatutako bi *rider*-taldeok tarteko “bikaintasun puntuazioak” lortzen dituzte. Sistema horren bidez, Glovok langileak sailkatzen ditu. Puntuazioaren arabera bakoitzak astero zenbat orduz lan egin dezakeen erabakitzen da, baita txanda berean ari direnen artean eskaerak esleitzeko probabilitatea ere. Beste hitzez esanda, askok ordu gehiagoz lan egin nahi badute ere, ezin dute. Normalean, *rider* horiek astean 10 eta 25 ordu arteko lanaldi mugatua izaten dute. Tarte horren barruan, bakoitzari esleitu zaion eskaera kopuru zehatza algoritmoaren apeten menpe dago, baita puntuazio altuko *rider*-ek hartutako ordu kopuruaren menpe ere.

RIDER BETERANOAK

Azken talde nagusia beteranoak dira. Jende hori Glovo hasiberria zenean Gasteizen sartu zen, 2017an. “Bikaintasun puntuazio” ezin hobeak dituzte eta lana serio-serio hartzen dute; izan ere, lanaldi osoko lanbidetzat dute. Hain puntuazio handia dutenez, pertsona horiek nahi beste orduz lan egiteko aukera izaten dute: normalean, 9 edo 10 orduz egunean, astean sei egunez. “Bikaintasun puntuazioa” aldagai askoren menpe dago, baina horietako garrantzitsuenak burututako bidalketa guztien kopurua da. Oro har, langile guztiek puntuazio ezin hobeak lortzen dituzte lanaren kalitateagatik eta eskaera altuko orduetan jarduteagatik. Beraz, langileak zerrendan gora edo behera mugitzen dituen faktore bakarra burututako eskaera guztien kopurua da; alegia, antzinasuna.


Alde batetik, langile horiek lanarekin nahiko pozik daudela adierazi didate. Haietako askok baldintza okerragoe-tan lan egiten zuten lehenago DHL, UPS eta antzeko bidalketa-enpresa tradizioaletan. Bertan, are lanaldi luzeagoak izaten zituztela salatzen dute, eta atseden hartzeko tarterik ere ez. Baina beste alde batetik, jakin badakite Glovoko baldintzak oso kaskarrak direla ia edozein lanekin konparatuz gero eta kontziente dira *rider* gehienek lanaldi murrizta dutela, beteranoek ez bezala. Talde horrek Glovoko langileen %10

osatzen du eta haien soldata hurbiltzen zaio gehien soldata dezente bati: hilean 900 eta 1.200 euro artean. *La Razón* egunkarian agertu zen *rider*-aren irabaziei 192,50 euroko autonomo kuota eta BEZaren %21 kenduz gero, ondoriozta dezakegu 881,88 euroko soldata lortzen dutela hiler, astean 42 orduko lanaldiaren truke. Hortaz, 5,24 euro ko-bratzen dute ordua, gutxieneko soldatatik behera. Kalkulu horretan hainbat kostu gehiago sartu beharko lirakeke, baina ezin ditut zehaztasunez jakin *rider*-ari zuzenean galdetu gabe.

Migratzaileek *rider* guztien %50-70 osatzen dute, hiriaren arabera. Jende horrentzat, bestelako lan-aukerarik topatzea oso latza edota ezinezkoa da



Beteranoen ordainsariak besteena baino handiagoak badira ere, alde txarra ere badaukate. *Rider* beteranoek as-tero 60 ordu inguru lanean eman behar izaten dituzte; kontratupeko langileak balira, egoera lotsagarri hori legez kanpkoa litzateke. Negozio eredu hori



ez da kalitatezko lanpostuak sortzeko bide berritzailea, nork bere burua esplotatzeko era baizik. Glovo aplikazio baten bitartez baliatu da langileak ahal beste orduz eta ahalik eta gogorren lan egitera bultzatzeko. Hortxe dugu Glovoren ideologia teknologikoaren ondorioa. Silicon Valleyn, neoliberalismoaren bihotzean, sortutako ideologia horren arabera, arrakasta gogorrago lan egitearen bitartez lortzen da, inola ere ez langile eskubideen alde borrokan aritzearen bidez.

ISTRIPUAK LANGILEAREN ARAZO?

Azkenik, Glovo eta bere langileen arteko harremana ulertzeko kontuan izan behar dugu lan izugarri arriskutsua dela. Lan istripuei dagozkien datu zehatzak lortzea zaila bada ere, garraioen sektorea arriskutsuenetarikoa da Espainiako Estatuan. Ikerketen arabera, txirrindulari batek istripu larri bat espero dezake 3.200 kilometrotan behin, batez beste. *La Razón*-eko *rider*-ak bizikletaz 10.000 kilometro baino gehiago egin ditu Glovon lanean hasi zenetik, orain dela bi urte. *Rider* baten lehen heriotza aurtengo maiatzean gertatu da, baina hori ez da inola ere lehengo lan-istripua izan Glovon. *Rider* lanean eman nituen hiru hilabete eskasetan, horietako askoren berri izan nuen, eta ikusi ere egin nituen. Ni neu gutxigatik libratu naiz behin baino gehiagotan. Kamioi batek jota Bartzelonako hogeita bi urteko gaztea hil eta astebete geroago, Gasteizko *rider* bat ospitaleratu egin

zuten auto batek jo eta gero. Horri buruz, Bartzelonan sortu den Riders X Derechos sindikatuko kide batek komentatu zidan datu zehatzak lortzea zaila dela, baina iristen zaien informazioaren arabera *rider*-ek trafiko-istripuak sarri izaten dituztela: "Bi istripu hiru egunean behin".

Nahiz eta lan hori existitzen den lanjerosenetarikoa izan, Glovok ez du inolako ardurarik hartu langileen segurtasuna hobetzeko. Bartzelonako heriotza eta gero asko hitz egin du aseguru poliza bati buruz, baina poliza horrek enpresa babesteko baino ez du balio, auzitara joateko beharra izanez gero. Beste poliza batek garraiatutako fardelen balioa barne hartzen du, baina, Glovoko nagusiak esan zidanaren arabera, ez bata ez besteak ez ditu indemnitzatzen *rider*-ak eurek jaso ditzaketan kalteengatik. Sinatu nuen kontratuak argi zioen: "Profesional Independentek onartzen eta bere gain hartzen ditu eskaerak edo mikro atazak dakartzan arrisku zein mentura. (...) [Glovok] halaber, ez du bere gain hartuko Profesional Independentek bere lanaldian jasan lezakeen kalte material edo pertsonalik. Horrek erantzukizun zibileko aseguruia kontratatu beharko du...".

Nire kontratuko pasarte horrek ezin hobeto laburbiltzen du Glovok zer-nolako harremana duen bere langileekin, baita haien ongizateaz zenbat ardurtzen den ere. Argi eta garbi adierazten dizute, arreta apur bat jarritz gero. ●

IKASLE GAZTELANIA-HIZTUNAK 48 ORDUZ GALEGOZ

Galiziako Oleiros udalerriko María Casares ikastetxe publikoko ikasleak dira. 12 eta 17 urte arteko 600 ikasletatik inork ez du eguneroko hizkuntza galegoa. Maiatzean erronka jo zuten hainbat irakaslek eta ikaslek: ea gai garen 48 orduz galizieraz aritzeko. 200 ikaslek hartu dute parte eta haien inguruan uste baino galego hiztun gehiago aurkitu dute.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE

 MARIA CASARES DE OLEIROS IKASTETXEAK UTZIA

Oso ezaugarri bereziak ditu A Coruña probintziako Oleiros udalerriak. 35.000 biztanleko herria A Coruña hiriaren ondo-ondoan dago. Eremu urbanoa da, baina lo-toki funtzioak betetzen ditu. Espainiako Estatuko per capita errenta altuenetakoa dauka. Erabat gaztelania hiztun diren 600 ikasle hartzen dituen María Casares ikastetxe publikoa hor kokatuta dago.

Nel Vidal irakasleak bere lehen ikasturtea bukatu berri du ikastetxe horretan eta aurreko urtearekiko sekulako alde sumatu du. Aurrez, Costa da Morte inguruan eman zituen eskolak, ia ikasle guztiek galizieraz hitz egiten zuten, eguneroko hizkuntza zuten. Oleiros berriz, eremu urbanoa da, eta halako eremuetan batez beste galizieraren erabilera %15ekoa da; txarrean %10ekoa. Oleirosek marka guztiak gaintzen ditu, María Casares ikastetxean inork ez du galegoa eguneroko hizkuntza.

IKASTETXETIK KANPORA ERE BAI

Irakasleek izan zuten erronka jotzeko ideia eta ikasleek egitasmoa zehazteko pausoak eman zituzten. Irakasleek, ikasleek eta ikastetxeko gainerako lan-

gileek hartu zuten parte. Maiatzaren 14 eta 15ean egin zuten. Helburu nagusiak bitan labur daitezke. Batetik, erabilera bultzatzea, ikasleak ohar daitezela gai direla galegoz egiteko, ez dute erabiltzen baina gaitasuna badute. Bestetik, ikasleei ikusaraztea ezkutuan dagoela galegoa, helduek ere haurrei ez dietela galegoz egiten, baina horrek ez duela esan nahi galegoz dakien jendea ez dagoenik haien inguruan. Ikasleei eskatuko diete probatzea, galegoz egitea, eta konturatuko dira nola hizkuntza berean erantzuten dien askok.

Hoxe falo galego (gaur galegoz egingo dut) txapa jarri zuten paparrean ikasleek, hemen hainbat egitasmotan azken urteetan egin den moduan. Helburu nagusia ez zen identifikatuta egotea bai zik eta ikasleari gogoraraztea bi egunez galegoz egin behar zuela. Ikastetxeko eremutik kanpo ere egun osoz galizieraz egitea zen erronka. Hasierako asmoa rol hori baino ez sortzea zen, baina antolaketa taldean parte hartu zuten ikasleak

beldurtu ziren. Haien ustez, ikasle batzuentzat oso zaila izango zen etxean, kirol elkartean... toki guztietan galegoari eustea. Beraz, ikasleen eskariz

ProGalego rola sortu zuten eta ikasle horiek erronka ikastetxera mugatuko zuten. Besteen konpromisoak ProGalegoPlus zuen izena. Ikasleen harridurarako, parte hartu zuten 200 ikasleetatik %90ak 48 orduz bizitzako eremu guztietan galegoz egiten saiatzea aukeratu zuten.



FEDERICO GARCÍA LORCAREN POEMAK ERE GALEGOZ

Galizian, eskola publikoan, ez daukate D eredurik, alegia, ikasgai guztiak galegoz ikasteko aukerarik. María Casares ikastetxean bi eratako moldeak daude. Ikasleen %20k heren bat gaztelaniaz, heren bat galegoz eta heren bat atzerriko hizkuntzan (ia denek ingelesa eta gutxi batzuek frantsesa) dauka. %80k herena pasatxo du galizieraz eta gainerako guztia gaztelaniaz. Esan dugu ikastetxeko komunitate osoak hartu zuela par-



TXAPA PAPPARREAN: "HOXE FALO GALEGO" (GAUR GALEGOZ EGINGO DUT) TXAPA ESKUTAN DUTE ERRONKALARIEK. BI AUKERA ZITUZTEN: BI EGUNEZ IKASTETXEAN GALEGOARI EUTSI EDO BI EGUNEZ BIZITZAKO EREMU GUZTIAN HELDU HIZKUNTZARI. IA DENEK BIGARRENA AUKERATU ZUTEN.

te erronkan, tartean irakasleak, bada bi egun horietan, ohiz kanpo, ikasgaiak galegoz eman zituzten. Hizkuntza horretan egiteaz gain, galegoari lotutako kontuak landu zituzten, esate baterako musikan gaur egun galegoz ari diren musika taldeak landu zituzten. Gaztelania ikasgaia bera ere galegoz eman zuten eta García Lorca poetak galegoz idatzi zituen poemak aztertu zituzten.

OKINAK BADAHI-ETA!

Antolaketan ikastetxeko Hizkuntza Normalizazio Taldeak hartu zuen parte, irakasleek eta ikasleek, alegia. Oso pozik daude lortutako emaitzekin. 50 bat parte-hartzaile espero zituzten eta 200ek sinatu zuten hizkuntza konpromisoaren kontratua. Konpromisoa hartu eta txapa janzteaz gain, ikasle gehienak erronka

betetzen serio aritu direla uste dute. Denek haien bizipenak eta hausnarketak bildu dituzte, idatziz edo bideoz. Nel Vidal irakasleak laburtu dizkigu gogoeta esanguratsuenak eta gehienek egin dituztenak: "Ikasleek esaten edo pentsatzen zuten hemen inork ez duela galegoz egiten, beraz ezin dutela galegoz egin. Bi egunetan ohartu dira gezurra dela uste hori, jende asko da galegoz hitz egiteko gai. Ikasleek ez zieten galizieraz egiten, beraz beraiei inork ez zien galegoz erantzuten. Harrituta geratu dira eta honelako adibideak eman dituzte: 'Okindegira joan nintzen eta konturatu nintzen okinak badakiela galegoz. Kafetegira joan nintzen eta galegoz erantzun zidan...'. Ezkutuan zegoen hizkuntza argitara atera da. Beste gauza batekin ere harrituta geratu dira ikasleak: haiek galegoz hasi

eta jendeak ez du ezer berezirik adierazi, ez positiboa ez negatiboa. Parte-hartzaile batek ondoko adibidea jarri du: "Goizean jaiki eta proba egitea pentsatu nuen. Inoiz galegoz egiten ez diodan aitari galegoz egin nion eta berak galegoz erantzun zidan, natural-natural, ezer ere esan gabe".

Bi eguneko erronka, ikastetxe bakar batek egin. Hala ere, oihartzun handia izan zuen hedabideetan. Vidalek argi utzi nahi du ez dutela ezer berririk asmatu, Euskal Herriko egitasmoei eta Galizian egiten den *21 días co galego* (Pobra do Caramiñal ikastetxean 2013an abiatua) egitasmoari begira aritu direla. Bi horiek kontuan hartuta, sekula galegoz hitz egiten ez duten gazteen errealtatera egokitutako erronka aurrera eramaten saiatu dira. ●

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA



UDAN EUSKARAZ

ARGIA 1919 - 2019

Blai!

BARRASKILOEN ETA BAREEN ILARGIA

Zergatik irten ziren hainbeste barraskilo eta bare ekainaren 23 gauean?



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Bart ilunabarrean bare eta barraskilo ehizera atera nintzen, aspaldiko partez. Egun argi ederraren ondoren zerua oskarbi zen, eta itxura guztien arabera ihintza polita zetorren. Hezetasun horren itxaropenarekin, gure pare, barraskiloa eta bare, paseatzera aterako zelako susmoa hartu nion.

Hartu banion, hartu nion. Ilunbista ordurako azaldu ziren, batean eta bestean. Nabarmena zen non ezkutatuta igaro zuten egun argiaren beroaldia. Gehienak harri pila eta egurketetatik agertzen ziren; egur artetik batez ere. Etxe inguruan adar sorta, ohol-meta eta zur-meta batzuk badiut eta, inondik ere, haien azpia hartua dute gordeleku. Berrehun artekoak zenbatu nituen, hortik atzera zenbatzeari ere utzi eta erabat parearen hiltzera eman nintzen. Beste horrenbeste baino gehiago, dezentez gehiago akabatuko nituen. Ezin sinetsirik aritu nintzen, batez ere bigarren orduan; ustez lehen denak garbitutako tokian bizi asko mugitzen ziren berriak zirelako. Bukatzen ez zen barraskilo eta bare festa zen, desdetxa!

Udako solstizioa igaro berria zen, 2019ko ekainaren 23a. Landare asko udaberrian, eguna luza eta luza ari denean, hazi eta hazi egiten dira. Udan, egunak laburtzen hasten direnean, loreak ireki eta fruituak ontzera igarotzen diren unea da hori. Sasoi berri bat abiatzen da, egun laburrenetan, ilunenetan eta hotzetenan pentsatuz aurrea hartu eta ugaltu egin nahi dira, hazia ondo heldu eta barreiatuta utzi nahi dute.



Bare eta barraskilo mugimendu hori ulertze aldera egun horretako egoerari begiratu diot. Ekainaren 23 horretan ilgoran ginen, hau da ilargiaren orbita gorantz ari zen. Era berean ilargiaren apogeoia izan zen 07:00etan, hori da guregandik urrutien dagoen momentua. Gure satelitea egun osoa eta hurrengo egunaren eguerdira arte Aquarius konstelazioaren parean izan zen. Arratsaldeko 19:00etan Artizarra eta Jupiter oposizioan izan ziren. Landareetan lorea

sustatzen dutela esan ohi den egun horietakoa zen. Eta guretzako, udaberriari agur eta udari ondo etorri esateko sua pizten dugun ilunabarra zen.

Lore eguna izateak atentzioa ematen dit, izan ere bare eta barraskiloak ihintzaren bustian loratzera ote zihoa zen? Batzuk bikoteka lotuta harrapatu nituen; apika hori zuten urteko ugaltze gau garrantzitsuena izendatua. Gure etxeko katuen mugarren sailean behintzat sarraski ederrean amaitu zen. ●

SANFERMINETAN TOKIKO PRODUKTUEK BERE GUNEA DUTE IRUÑEAN



GARAZI
ZABALETA



Uztailen sartu garen honetan Iruñea eta Nafarroa osoa dago Sanferminei begira. Jaietan bestela izan ezin duenez, janak eta edanak protagonismo berezia hartzen du ospakizunak irauten duen bederatzi egunetan, eta iaiztik, bertako produktuek nahiz produktu ekologikoek ere badute beren gunea: Karlos III. Etorbidean, Orreaga kalearen ondoan jartzen dute karpa Nafarroako Elikagai Artisauen Elkartek, Reyno Gourmetek eta Nafarroako Nekazal Produzio Ekologikoaren Kontseiluak (NNPEK).

TOKIKO PRODUKTUAK DASTATU ETA EROSTEKO AUKERA

Bi gunetan banatuko dute antolatzaileek tokiko produktuen karpa: lehenengoak taberna moduan funtzionatuko du, eta bertara hurbiltzen direnek tokiko produktuekin egindako jaki eta edariak dastatzeko aukera izanen dute. Bigarren gunek berriz denda itxura izanen du: Nafarroako produktu ugari erosteko aukera izanen dute bisitariak bertan.

Osozara 25etik gora ekoizle eta enpresa nafarrek hartuko dute parte karpan, eta horietako askok produktu ekologikoak ere eskainiko dituzte. Zer egonen den gunean? Ardoa, sagardoa, zukuak,

haragia, kontserbak, gaztak, ogia, gozoak, hestebeteak, olioak, sasoiko barazkiak... "Uztailaren 4an zabalduko dugu gunea, eta sanfermin guztietan egunero egonen da zabalik, goizeko 8:00etatik gaueko 23:00ak arte", iragarri du Isabel Pueyo NNPEKko kideak.

TOKIKO ELIKAGAI EI BALIOA EMANAZ

Nafarroan ekoizten diren produktuak ikusaraztea eta horiei merezi duten balioa ematea du helburu ekimenak. Izan ere, sanferminetan Iruñeak bisitari asko jasotzen dituen, antolatzaileek uste dute aukera paregabea dela bertako produktuen eskaintza zabala ezagutzera emateko. "Bertako ekoizleen lanak eta ekoizpen lokalaren filosofiak jasangarritasunari eta elikadura osasuntsuari egiten dion ekarpena aitortzea da helburua, baita jakiok Iruñeko eta Nafarroako ekonomian duten garrantzia baliotzat hartzea", diote bultzatzaileek.

"Posible delako sanferminetan disfrutatzea eta, aldi berean, elikagai ekologikoak kontsumitzea, tokian tokiko ekoizleei bultzada emanez", dio NNPEKk zabalduko oharrean. Festa giroan modu osasuntsu eta jasangarrian jateko aukera egonen da Iruñean, beraz, aurtan ere. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

UZTAILAK 11

DONIBANE GARAZI, Behe Nafarroa

Tokiko ekoizpen eta artisauen azoka, merkatu estalian.

UZTAILAK 11

OZAETA, Araba

Etxeko sagardoa egiteko ikastaroa Jakoba Errekondorekin. 16:00etan udaletxe zaharreko aretoan.

UZTAILAK 15

BAIGORRI, Behe Nafarroa

Irulegiko cava ezagutzeko sotor bisita. Astelehenero 14:30ean.

IZENA EMATEKO:

www.cave-irouleguy.com/eu/contact

UZTAILAK 18

MAULE, Zuberoa

Kafe-transmisioa egingo dute Euskal Herriko Laborantza Ganbarak antolatuta, gai hau lantzeko: Zer egin dezakegu Iparaldeko etxaldeak arrahartuak izateko? Nola segurtatu laborantza herrikoia etxalde horietan? 20:30ean Zerbitzu gunean.

UZTAILAK 20

ARRASATE, Gipuzkoa

Arrasateko baserritarren produktuen azoka. 9:00etan hasita Seber Altube plazan.

UZTAILAK 20

ZIGOITIA, Araba

Zigoitiako txokoak ezagutzeko txangoa: Magdalenara abiatuko dira 9:30ean Bengolarreko aparkalekutik.

UZTAILAK 25

GASTEIZ, Araba

Santiagoko azoka.

1987ko abenduaren 6a

IRAGARKI HISTORIKOAK

Sostengua eta publizitatea



KOLDO IZAGIRRE

gurpil gabeko tranbia
hamar zorriren habia
itzali argia, itzali argia
argi hau ez da garbia

oso beharrez erditsu
zoro batzuen zerbitzu
itzali argia, itzali argia
ergel baino hobe itsu

marmarra plaza erdian
marmarra kafetegian
itzali argia, itzali argia
min ematen du begian

kulturetxean bi zozo
papera letzen inozo
itzali argia, itzali argia
hobe ilunpean gozo

zenbat idatz zenbat aditz
zuzen guti makur anitz
itzali argia, itzali argia
kaltegarria da hagitz

eusko fedean adorez
baratzea babalorez
itzali argia, itzali argia
itzali argia faborez ●

 MIREN OSA GALDONA

Denda txikiek, erakundeek, banke-
txeek nahiz nazioarteko marka
komertzialenak eman diete euren
buruaren berri ARGIAko irakurleei ehun
urteotan. Garaiki aldatzen joan diren
heinean, iragarkiaren estiloa eta tematika
ere aise eraldatu da.

Hona lehen memoria ariketa: oroitzan al zarete Laboral Kutxaren iragarki melankoliko hartaz? Begirada interesgarriko gizona eta emakumezko bana ageri dira, serio, tentuz, ortzi-mugara begira edo. Eta zer esan oraindik bide-lagun den Zinkunegi Optikaz: 70eko hamarkadan jada bere iragarkiak aurki daitezke eta gaur egungo aleetan ere ikus dezakegu Donostiako dendaren berrri, beti Net Hurbil atalean. Ez dira adibide bakarrak, eta harribitxitzat jo daitezkeen iragarki bat baino gehiago dago ibilbide osoko aldizkariak aztertuz gero, izan lelo deigarriak edo izen elebreak dituztelako, edo betaurreko moreak izatetik urrun egon direlako.

1964an josteko makinaren Alfa enpresak emakumezkoei zuzendutako iragarkia ordaindu zuen, "euskal etxekoandreak amets egiña!" leloa erabiliz. Testuinguruak testuinguru, Jabon Lagarto ere ez zen atzean geratu: "etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena" omen zen bere xaboia. A ze pagotxa! Garai berekoak dira irakurle baserritarrei zuzendutako hainbat iragarki bitxi, mezu zuzenak bezain asaldagarriak zituztenak: Funcor "benetako baserritarrak bear dituzten makiñak!", Fanderia pentsura "ez merkeenak, bai onenak!" eta Solo atxurra "amar gizonek aiña lan egin dezake".

Beste hizkuntzetan asmatzea zaila izango litzatekeen genero berri bat ere sortu zuten *Zeruko Argiako* kazetariak: bertsoa eta publizitatea uztartzen zituen ariketa komertziala. Insalus ur botilen etxea eta Freixenet kaba, esaterako, ondo baino hobeto moldatu ziren modalitate berrira. Hona bi adibide: "Edan zazu, Insalus! Gorputza ondo eztagonean / ezta-



Zeruko Argiako publizitatea, 1964an.

go barren girorik, / sendagai ona eskutan
dezu; / etzazu galdu denborik! / Beiri
artzen dunak eztu izaten / berriz uzteko
gogorik, / mairako urik ezpaita sortu /
Insaluz bezelakorik!". Kanpoko enpresek
ere ez zioten uko egin errimari: "Egube-
rritako txanpaña... Freixenet alajaña!".

Nagore Irazustabarrena Urangak duela hamar urte idatzi zuen 2.181.zenbakian, ARGIAren bidelagun izan diren iragarle historikoei buruz. Galdera bat gehitu zion sarrerako testuari, *Ez merkeenak, bai onenak!* Lander Garroren saiakera baliatuz: “Zerk bultzatu ote zituen hemen ageri diren iragarleok euskarazko iragarkiak egin eta argitaratzera? Euskaltzaletasun hutsak, ala euskara erabiltzearen abantaila komertzialek?”. Nago erantzuna bien arteko nahasketan dagoela eta nahasketak ez duela zertan erdia eta erdia izan behar. Jar dezala bakoitzak nahi duen neurrian osagai bakoitza. ●

Urriak 12, badugu zer ospatu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez gaizki ulertu titularra, irakurle, etxe honetan ere ez dugu bereziki maitea ahuntzek lagundutako asto armatuen ospakizun eguna, eta ARGIA-ren mendeurreneko ospakizun nagusia egun berean tokatu denez, "hispanitatea"ren egunari buelta emateko baliatuko dugu, "deskoloniza gaitezen".

Donostiako Trinitate plaza izango da erdigunea. Probestu nahi da komunitatea elkartzeko, euskaltzale orori irekia izango den ospakizun bat egiteko, ARGIA kalean, denen eskura jartzeko. ARGIA lagun, euskaltzale ume edo komunitateko gazte, denentzat izango da leku bat egun horretan.

DANTZA, MUSIKA, JOLASA, POESIA...

Egitarauaren xehetasunak aurrerago emango baditugu ere, hona egunaren hezurdura: 11:00etan umeentzako jolas berezia egingo da Urgullen. Gainerakoak 12:00etan abiatuko dira Trinitate plazatik kalez kale, txistulari bandaren atzetik: hiriko hainbat leku esanguratsutan egingo du jende multzoak geldialdia, bertako azalpenak jaso eta bertsoak entzunez trago gozo bat egiteko. 13:00ean Konstituzio Plazan soka-dantzaren bidez lotuko da ARGIA komunitatea.

Bazkaritarako Trinitate plazan zain egongo dira sagardo upela, mahaiak eta aulkiak. Hortik aurrera, norberaren esku etxetik eramandako janaria jatea edo inguruko tabernetatik zer jana ekartzea. Bazkalosteko kafea *Pobresiak* emanaldi



Donostiako Trinitate plaza dagoeneko zain dago, ARGIAren mendeurreneko festa deskolonizatzailea noiz iritsiko.

poetikoa gozatuz hartuko dugu. Ondoren NAN jaurtiketa eta antzeko jolas herrikoiak egingo dira adin guztientzat. Eta gaua biribiltzeko, 20:30etatik aurrera kontzertu eder hau gozatuko dugu: Amaren alabak, Mursego, Balerdi Balerdi eta Niña Coyote eta Chico Tornado.

ARGIAREN ALDE JARDUN NAHI?

Txosna jarriko dugu egunean bertan, eta txandak egiteko aukera dago. Antolatzaileek adierazi dute ez dutela esperientzia

handiegirik eskatzen, herriko festetako barran pare bat aldiz ibili izana nahikoa dela, eta gehiago dela pulamentu kontua.

Bestalde, iraila hasieran zure herrian bost kartel itsatsita ekarpen handia egingo zenuke festaren berri zabaltzen.

Barra atzerako edo kartelak pegatzeko prest dagoenak, idatzi posta elektronikoa honetara: argiak100urte@argia.eus eta berehala jarriko dira lantaldekoak harremanetan, kartelak helarazteko edo txosnako txanden ordutegia adosteko. ●

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS



NOLA DA **MUSUTRUK?**


Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu ARGIA Jendearen-tzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



BIEZKON EGONALDIA
GAU BAT ETA GOSARIA

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Uztailak 18, osteguna, 10:00etan

Garagardorik gabe lanik ez




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

AEB, 1919ko ekainaren 30a. Alkoholaren gaineko Gerra Garaiko Debe-ku Legea jarri zen indarrean eta, horrenbestez, biharamunean, %1,28 baino graduazio altuagoa zuten alkohol-dun edariak saltzea galarazita zegoen herrialde osoan. Ekainak ez ditu 31 egun, baina 1919ko uztailaren lehenari "Thirsty-First" esango zioten, alegia, egarriak egon ziren lehen eguna, *thirty-first* (hogeita hamai-kagarrena) hitzarekin jokoa eginez.

18. zuzenketa, Lege Lehor ezaguna, urtebete lehenago proposatu zuen AEBetako senatuak, 1917ko azaroaren 18an. 1919ko urtarrilean 36 estatuk onartu zutenean, Konstituzioari erantsi zitzaion. Azkenik, Lege Lehorra 1920ko urtarrilaren 17an jarri zuten indarrean ofizialki. Baina ekainaren 30eko legea izan zen debekurako lehen urrats praktikoa eta, horregatik, debekuaren aurkako mugimenduak data hori izan zuen jomuga.

New Yorken eta New Jersey abiari zuen mugimendua, *No beer no work* (garagardorik gabe lanik ez) lelopean. Sindikatuko ordezkariak lelo hori zuten intsigniak erabiltzen hasi ziren eta esaldia izenburu zuten hiru abesti ere konposatu zituzten. Baina mugimenduaren ekin-tzarik garrantzitsuenak uztailaren leheneko antolatutako greba izango zen. 1919ko neguan prentsak hazten ari zen mugimenduaren berri eman zuen. Chicago-ko *The Evening World* egunkariak



EZKERREAN, ALKOHOLAREN DEBEKUAREN AURKAKO 'NO BEER NO WORK' KANPAINAKO INTSIGNIA. ALBOAN, IZENBURU HORREKIN KONPOSATU ZIREN HIRU KANTUETAKO BATEN PARTITURAREN AZALA.

"*No Beer No Work* mugimendua nazio osoan zabalduta" titularra hautatu zuen otsailaren 9ko alean, 200.000 sindikatu ordezkariak uztailaren lehenean greba egitearen alde bozkatu zutela adierazteko. Apirilean asmo horien berri mundu osoan zabalduta zegoen; Australiak *Northern Territory Times and Gazette* egunkariak hilaren 19an zioen greba egunean herrialde osoan langileek lana utziko zutela, garagardo eske. Eta Ernest Bohn Central Federal Union sindikatuko ordezkariaren hitzak jaso zituen: "Pro-

testaren indarrak Auzitegi Gorena zuzenketa Konstituzioaren kontrako dela deklaratzera behartuko du".

Baina protestak ez zuen indarririk izan. Uztailaren hasierako egunkarietan behintzat ez zen halakorik jaso, salbuespen bakan batzuk kenduta. Horietako batek zioen uztailaren 9an Allentown-eko (Pennsylvania) tabernariak greba egin zutela debekuaren "izugarrikeriez" ohartarazteko. Baina, bistan da, halakoak ez ziren nahikoa izan hurrengo urteetan langileen garagardo egarria asetzeko. ●



Kanario frijituak ajearen aurka

Plinio Zaharra (K.o. 23-79) erromatar idazle, historialari eta naturalistak, ajearen kontrako erremedio bitxi eta konplikatu samarrak jaso zituen *Historia Naturalis* lan mardulean, Vesubioren erupzioaren eraginez hil baino lehen. Kanario frijitua zen horietako bat: "Hartu kanarioa eta, guraize handi batzuk erabiliz, moztu burua. Egin ebaki txiki bat aza-

lean, bularrezurretik gertu. Sartu hatza eta, kontu handiz, azala kendu, luma eta guzti. Berotu olioan erruz, kea darion arte, eta frijitu txoritxoan bi minutuz. Xukatu eta gatzaz eta piperraz ondu". Ez daki-gu metodo benetan eraginkorra ote zen, edo errezeta prestatzeko buruhaustea saihesteak berak eragiten ote zuen ajearen sintomak arintzea. ●

SANFERMINETAKO

KAMISETA



SALNEURRIA: 8 EURO! ESKUETATIK DAKENZKIGUTE!

**SALTOKIAK AURRETIK: KARRIKIRI (XABIER, 4)
ETA EUSKALERRIA IRRATIA (IRATXE, 45)**

SALTOKIA SANFEMINETAN: ZALDIKO MALDIKO (ANSOLEAGA, 9)

EUSKALERRIA IRRATIAREN KAMISETA SOINEAN, IBILI IRUÑEAN!



euskalerrirratia ^{eus}



“Edozein bizitza arrunt birbalorizatu daiteke idazketaren bitartez”

MIREN AGUR MEABE, IDAZLEA

Jaioterrian hartu gaitu Miren Agur Meabe idazleak, Lekeition, Miramar izeneko txoko ederrean. Orain sei urte *Kristalezko begi bat* (Susa) liburuarekin arrakasta handia bildu ondoren, erronka berri bati aurre egin eta plazara atera du *Hezurren erretura* (Susa). Azken hau ez da aurrekoaren jarraipena, baina diptiko bat osatzen dutela uste du autoreak. Memoria egitea fikzioa egitea dela adierazi du.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

***Kristalezko begi bat* eta gero publikatu duzun liburua da *Hezurren erretura*. Izan al du eraginik horrek?**

Gogoan daukat Hasier Etxeberriak *Sautrelan* elkarrizketa egin zidanean, galdetu zidala ea nola egingo nion aurre hurrengo egitasmoari. Gutxi gorabehera erantzun nion ez nekiela, emango zidala bizitzak zertaz idatzi, eta orduan ere –ez dakit Pessoa ala Rilke parafraseatuz–, bihotza jarriko nuela papere-tan. Deklarazio sinplista horrekin esan nahi nuen neure onena jarriko nuela, beste kontu bat izango zela lorpenaren tamaina. Egia esanda, liburu hau idazten ibili naizenean une oro izan dut presente erronka berri bati egin behar niola aurre, baina ezin nuela formatua errepikatu, nahiz eta formatu arrakas-tatsua izan.

Dudarik ez, begi hartatik datoz hezur hauek. Adibidez, memoriaren gaia, oroitzapenenetan arakatzea gure oraina ulertzeko, horren guztiaren hasikina liburu hartan dago. Badira beste lotura batzuk ere: inoren aipu literarioak erabiltzea autoritate-argudio gisa, idazkuntzari buruzko gogoetak...

***Hezurren erretura* egiten ari zinela jakin baino lehen hasi zinen hezurak erretzen? Ala, argiago, nola hasi zinen liburu hau idazten?**

Hasieratik neukan intuizioa tituluaren hezurak agertu behar zirela, elementu horrek jarraipena eman ahal ziolako nire ibilbidearen eskemari: azala, eskuak, begia... Denborak gudan uzten duen eragina, hezurak, edo bizitzaren pisua azpimarratzeko, hezurretako mina.

Asmoa ipuin solteak sortzea zen. Gero, idatzi ahala, eta irakurketa batzuk tartean, apur-apurka hasi nintzen obra zabalago bat irudikatzen, oraina eta iragana txandakatuz eraikitako *continuum* bat.

Eta nola joan da *continuum* hori osatzeko prozesua?

Neketsua izan da, batez ere oihartzun sare bat sortu nahi nuelako, obrari koherencia eta fidagarritasun itxura emateko. Horregatik errepikatzen dira noizetik noizera testuinguruko erreferentziak, giro sozialeko datuak eta beste kontu batzuk: arratoiak, ametsak, seinaleak, tokiak eta pertsonaiak... Amalgama bat egiteko, artifizial gertatu barik eta oreka zainduta.

Liburuan, Nadineri igorritako gutunetako batean protagonistak esaten dio



berarentzat idaztea dela baltsa baten gainean zutunik jarri eta orekari eusten saiatzea, ibaiak zer ematen dion, ba horixe sartuz baltsara, eta arraun egitea, bestela, makila lokatzetan inkatuta geratzen dela. Alde horretatik praktikoa naiz, bizitzako gorabehera asko paperra eramaten ditudalako.

Erreturaren irudia oso emankorra iruditu zait.

Erretura esatean idazkuntza esan nahi dut, eraldaketa bat delako. Hartu lehen-gai bat, dena delakoa, sustraia edo harria edo fruitua, eta horixe erre. Materia hori beste zerbait bihurtuko duzu, errauts; eta maila literarioan, testu. Baina hori egitean, gainera, beste energia mota bat sortzen da. Liburuan bada indarra lortzeko espiritua, nahia. Zentzu horretan, erretura egitea, pertsonaiarentzat soberakinen eta zamengarriketa egitea den moduan, niretzat idazle gisa ahalduntzea da, bizitzako eragozpenak gainditzea.



“Etiketek eta sailkapenek gero eta gutxiago kezkatzen naute. Nire kezka, bene-benetakoa, izaten da liburu ona osatzea, liburu eder bat, irakurlearen emozioekin, gogoetekin eta sentimenduekin nahastuko dena eta gozamen estetikoa ere sortuko diona”



Eragozpenak direla-eta, liburuan umore eta ironia handia dago tarteka. Adibidez, hemen: “Ez nengoen neure onenean, ezta hurrik ere, baina kapaz izan banintzen Korrikaren lipdubean parte hartzeko, noiz eta despedidaren biharamunean, lorra lepora eta segi aurrera”

Justu esaldi horren aurretik pertsonaiak esaten du minari ezin zaiola utzi agintea hartzen. Zaurien tamaina gorabehera, ikasi egin behar dugu gero eta bizkorrago jaikitzen. Hau mezu esplizitua da emakumeentzat. *La vita è bella* ipuinean –titulu ironikoa–, esaten da bizitzaren ederra zera dela, galgunetik aldentzeko jartzen digun ariketa. Konparazioa eginda, *Kristalezko begi bat*-eko protagonistak, sekulako sufrikarioa zeukan, baina bere askatasunaren bila jokatu zuen, duintasunez, eta, neurri batean, idazteak lagundu zion aurrera egiten. Beste protagonistak honek horretan badu haren antza, baina barre gehiago egiten dio bere buruari, zorrotzagoa da besteekin, eta erradikalagoa ere bada.

Aurkezpenean esan zenuten narrazio-liburu bat zela baina eleberri gisa irakur zitekeela esan izan dizutela. Nik neuk bigarren horrekin egiten dut bat: gauza oso eta koherente baten irudipena eman dit. Etiketari ipini beharrak kezkatzen zaitu?

Etiketek eta sailkapenek gero eta gutxiago kezkatzen naute. Nire kezka, bene-benetakoa, izaten da liburu ona osatzea, liburu eder bat, irakurlearen emozioekin, gogoetekin eta sentimenduekin nahastuko dena eta gozamen estetikoa ere sortuko diona.

Leire Ziluaga editoreak aurkezpenean aipatu zuen moduan, liburuan badira hainbat narrazio-molde: gutunak, egunerokoak... Esan zuen emakumeek idatzi izan dituzten generoak direla horiek, gutxietsi izan direnak. Halakoak azaleratzeko ahalegina egin nahi zenuen?

Bai, Leirerekin lehen aldiz bildu nintzeanean, esan nizkion nire hiru premisak: bata, liburuak memoria fikzionatuen kutsua izango zuela; bestea, ipuinei buruz dugun kontzeptu klasikoa malgutu nahi nuela. Adibidez, *Ametzen inbentarioa* ez da narrazioa egituraz, baina bere soiltasunean kontraera asko barnebiltzen ditu. Eta hirugarrena, literaturaren historian kanonak estimatu ez dituen formak agertuko zirela, egune-



rokoa eta gutunak, eta autobiografia estiloko kontaketak. Emakumeek gehienbat erabili dituzten generoak dira, eta betertzetik begiratu izan zaie intimitatearen esparrukoak direlako.

Eta nondik datorkizu hori egiteko asmoa?

Josune Muñozekin, Skolastikako taillerretan, konturatu nintzen genero horiek azpi-generotzat hartu izan direla, eta ondorioz emakume askoren lanak ez direla aintzat ere hartu literaturaren historian. Kritikak erabili izan duen begirada oso murrizta eta murrizgarria izan da, emakumeek beren ikuspuntu-tik kontatutakoak gutxietsi dituztelako gehienetan.

Miramarren eman didazu hitzordua, liburua hasten den tokian, hain zuzen ere. Liburuaren aurkezpenean zera esan zenuen: “adoragabetzailea” suertatuko litzaizukeela baldin eta jendeak, protagonistarengan, egilea baino ez balu ikusiko. Zer ikuspegi daukazu autorearen, fikzioaren eta

auto-fikzioaren arteko muga horien inguruan?

Miramarren hasten da, eta amaitu ere bai, ziklo bat burutu dela adierazteko.

Nire lehenengo lanak idazten hasi nintzenetik sententzia izan dut idazteko beti edango nuela nire bizitzatik, beste era batera esanda, gaurko berbeekin, “ni-aren literatura” izango zela nire ildoak, zuzenean edo zeharka. Edozein bizitza arrunt birbalarizatu egin daiteke literatur idazketaren bitartez. Autofikzioa, autoimitazioa, autobiografia... halako eztabaidak uxatu egiten ditut neure buruari esanez idaztea, edo askatasun-ariketa dela edo ez dela ezer. Aurkezpenetarako, irakurle klubetarako, elkarrizketetarako, beharrezkoa da diskurtso oinarritzko bat izatea, argumentario bat, norberaren ideiak ordenatzeko ere, baina bestela ez du garrantzirik. Gainera, irakurleok beti izaten dugu tentazioa egilea ikusteko ertz batean edo bestean.

Nire kasuan, kontziente naiz egilearen eta protagonistaren artean muga lausoa dagoela, eta hori hala da, nahitara, nire ildo naturala delako. Annie Er-

naux-en xarmaren eragina ere bada. Dena dela, liburu honetan askoz fikzio gehiago dago aurrekoan baino. Ardatzak, denborak, tokiak, materialak, ugariagoak dira. Eta protagonista neu naiz partez, baina baita nire belaunaldiko beste neska, nerabe eta emakume batzuk ere. Datorren urtean, honekin batera idazten ibili naizen poema liburua atera eta gero, nire erronka berria akaso izango da ez autofikzioa, ez autobiografia ez den zerbait idaztea.

Zure ustez moda bat al da?

Moda hitza arriskutsua da, fribolitate puntua daukalako, eta bizkor igarotzen denaren kutsua. Esango nuke indarrean dagoela, eta horrek poztu egiten nau. Laura Freixasen iritziz, dena da autobiografia, oinarri biografikoa %1 edo %99 izan. Baina ezin da ukatu errealtatea zehatz-mehatz jasotzea ezinezkoa den momentutik, nahiz eta borondate-rik handiena izan leial jokatzeko, fikzio bihurtzen dela idatzitakoa. Bizitza armiarma-sare oratuezina da, boligrafoarekin jasotzen hasi orduko, desegin edo desitxuratu egiten da. ●



LIBURUA

Bizitza hezur mordo astuna da, darling



HEZURREN ERRETURA MIREN AGUR MEABE

SUSA, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

San Juan bezperan idazten ari naiz kritika hau, zaharra erre eta berriari ongi etorria egiten zaion egunean. Garai ezin hobea Miren Agur Meaberen azken lana irakurtzeko. Lan hau "arazketa errituala" dela dio une batean protagonistak. Izenburuari buruz hurrengo dio: "Oraindik ez neukan izenbururik, baina intuizioak hezurak iradokitzen zizkidan: sinbolo horrek batasuna eman ziezaiokeen nire lanari, azalean hasi, eskuetatik jarraitu, begian geldiduna egin eta gorputzaren barrenengoetara jo garako lukeen miaketan. Idazketa prozesuari begiratzean ordea: Liburu hau burutzea gorpil hits eta sorgogarrri batetik askatzeko ekintza bat izan da niretzat".


Mosaikoak osatzen dituzten harri txoak dira narrazio hauetako baten izen-

burua: Teselak. Baita liburu honen egitura deskribatzeko irudia ere. Narrazioa da, joan-etorriko loturez jositako ipuin sarea edo nobela fragmentatua; fikzioa, termino *angloa* erabiltzekotan; autofikzioa gertaerak eta pertsonaiak errealtatean jaio eta fikzioan gorputzu dituela kontuan izanik. Hori baino gehiago egiturari begira kontaktarekin batera gutunak, poesia, egunerokoa, testamentua, ametsen bilduma, eta flora eta faunaren seinaleak.

Hizkuntzari dagokionez, aurreko lanetan bezain mamitsu agertzen zaigu euskara. Eta ez dator bakarrik, latina, ingelesa, frantsesa, italiera eta gaztelania-tik hartutako espresio zenbait topatuko ditugu tarteka: *La recherche de l'absolu*, *Gratis et amore*, *Daily program*...

Protagonistak ordura arte bizitakoari egiten dio errepasoa eta bakardadea, desosegua, konponketak agertuko zaizkigu parean. Baina bidelagunak ere hor egongo dira, arrimuan: Rosalia de Castro, Collette, Virginia Woolf; senideak eta hildakoak, Nadine eta beste "ahizpa" batzuk; maitale-edo izandako O. eta Z.; edo idazletzan gurutzatutako han eta hemengo literaturgileak.

Euri lainoak eta itoginak izango dira agertokian, lorategi, baso eta zuhaitzek ere presentzia izango dute. "Atzoko neska eta gaurko andrea" ezagutuko ditugu orriotan, zorrak kitatzen jardungo du, doluan, idatziz, iraganetik orainera, gerorako bideari garbi eta gogoz ekiteko. Izan ere: "Bizitzaren ederra galgunetik aldentzeko jartzen digun ariketa da". ●



KONTZERTUA

Ondo egindako lana



ALEXEI VOLODIN PIANO-JOTZAILE ERRUSIARRA.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Amaitu da aurtengo Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren abonuzikloa eta, benetan, oso aho-zapore ona utzi digu. Azkeneko saio honek denetatik zuen txalokada izugarriak lortzeko: maisulanak, primerako bakarlaria, eta batez ere, ilusioa eta adorea interpretazioetan.

Pianoa jotzen dugunok badakigu Sergei Rakhmaninoven *3. Kontzertua re minorrean* benetako erronka dela edozein bakarlarirentzat. Mota guztietako zailtasunak aurkitzen ditugu partitura honetan: deabrukeria teknikoak, soinu-exijentzia handiak eta, panorama honekin, fraseatze naturala lortzea ia ezinezkoa da. Baina Alexei Volodin piano-jotzaile errusiarrarentzat hori guztia lelokeria izan zen. San Petersburgon jaiotako artista honek sari ugari ditu (hauen artean,

Zuricheko Géza Anda saria lortu zuen 2003an) eta izugarritzko baliabideak ditu honako obra hau aurrera eramateko. Aisetasun osoz salbatu zituen zailtasun teknikoak, uneoro soinu gardena eta haragitsua eskaini zuen, eta, benetan, jario musikal zirraragarria eskaini zuen. Guztitan entzun dugu Rakhmaninoven lan hau hain gardena eta naturala. Bestalde, askotan esan dudana bezala, Gasteizko Principal Antzokiko akustika oso txarra da, baina hala eta guztiz ere, Volodinen soinua biribil eta atsegina egin zitzaigun, akatsgabea. Euskadiko Orkestrak jakin izan zuen bakarlaria inguratzen dotoreziaz, soinu-bolumen egokiak lortuz eta lanaren irakurketa orekatua eginez. Treviñoren meritua, zalantzarik gabe. Volodinek bis pare bat eskaini zuen: Sc-

**RAKHMANINOV ETA
TXAIKOVSKIREN LANAK**
EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOA/ ZUZENDARIA:
ROBERT TREVIÑO
GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA
EKAINAREN 13A

riabinen bi pieza liluragarri, perfektuak.

Saioaren bigarren zatia ez zen makala izan. Txaikovskiren *5. Sinfonia mi minorrean, op. 64* obra ederra da, handia, perfektua, melodiotsua... eta Euskadiko Orkestraren bertsioa mundiala izan zen. Robert Treviñoren eragina oso positiboa izan da azken urteotan. Begi-bistan geratu zen kontzertu honetan. Lortutako homogeneotasuna soka oso nabaria da, eta metalezko atalaren kalitateak gorantz egin du zalantzarik gabe. Gauzak horrela, sinfonia honen interpretazioa karamelu bat izan zen publikoarentzat. Aipagarria izan zen bigarren zatia, *Andante cantabile con alcuna licenza*, non sarrera zinez ederra ateratu zen, eta tronparen aktuazioa hobeezina.

Disfrutagarria, bene-benetan. ●



Musikaren Egüna, azken bat bideko

ANDREA ZUBOZKI JAVIER MONSALVE

Urtero Musikaren Egünera noa programazioari behakorik eman gabe, eta aldi guziz egitarauaren aberastunak harriturik uzten nau. Aurtengoa azken edizioa izanki, Urdiñarbera bihotzeko zimiko ttipi batekin joan nintzen, martxa baten azken noten entzutera.

Lyongo (Frantzia) Chromb taldearen azken kantua entzun eta ber hiriko Poil (euskaraz ilea) hirukotea oholtzara igo da. Bateriak, baxuak eta teklatuak osatzen dute math rock indartsua ardatz duen taldea. Orain arte lurrean pausatua ziren ipurdiak fite altxatu dira eta lehen buruak astintzen hasi dira, erritmoak ez badira ere segitzeko errazak.

Groove ikaragarri batekin, bateria eta baxuak esaldi luze eta korapilatsuak errepikatzen dituzte teklatu-jotzaileari jolasteko eremu zabal eta sendoa eskainiz. Azken horrek, gehienbat soinu monofonikoen bidez, inprobisazio luzeak

egin ditu, baxuaren zuzentasunarekin kontrastea eginez. Bateria bien artean da, beti hari baten gainean, sekula erori gabe. Free jazz eta rock progresiboaren bidegurutzean, hirukoteak eszena gainean plazera hartzen duela argi da, nahiz eta bakoitzak kontzentrazio handia atxiki saio osoan.

Taldeak *Sus* izeneko bere azken lana aurkeztu digu kantu guziak diskoaren ordenan joz. Kantuak Okzitaniako poetatik inspiratzen direnez, hiru taldekideek okzitaniaraz kantatu dute, hiru bozetan. Jadanik berezia den musikari polifoniak gehituta, giro mistikoak sortu dituzte. Trantzean sartu gaituzte.

Soinu landua dute denek. Teklatu-jotzaileak bi Midi teklatu darabiltza, delay efektuekin. Gitarra baten gisara, frekuentzia gorenen bila dabil baxuari lekua uzteko. Bateria nahiko minimalista da, bi tinbalekin, eta zinbalek kolore

POIL MUSIKA TALDEAREN EMANKIZUNA

NOIZ: ekainak 9

NON: Urdiñarbe

beroa dakarte, dirdira soberakinik gabe. Baxuak aldiz, distortsio naturalari esker, soinu gizen baina zehatza eskaini digu.

Publikoko anitz loriatu bagara ere, Poilen musika ez da hain entzunerraza. Horien ondotik eszena hartu duen A-Wa taldea entzuteko lekua betetzen ikusteak baieztatu dit. Baina Musikaren Egüna indarra betidanik hori izan da: asteburu batez musikazaleak eta bestazaleak batzea.

Poil taldeak kolektibo aberats eta hiperaktibo baten ezagutza ahalbidetu dit: Lyongo Dur et Doux labela. Hemeretzi taldek osatzen dute, eta horien artean talde bereziak ere atzeman daitezke, besteak beste Piniol, Poil eta Ni taldeen arteko topaketak eman duen proiektua. Bi baxuk, bi gitarrek, bi bateriak eta teklatuak osatzen dute zazpikotea. Musika tekniko eta indartsua gustatzen bazai-zue, ez duda! ●



Hitz gezidunak

NANO, NIMINO ----- GARBI, TXUKUN		ARNEGU, AMORRU ----- HIL GUZTIE- TAN		PERTSO- NAIAREN ABIZENA		DEZIBELA- REN IKURRA ----- NIGERIAKO ANTZINAKO KULTURA		LANDARE MOTA ----- NAFARROAKO IBAIA		NAFARROAKO HERRIA ----- ADINA		SUIL BATEN EDUKIA ----- HIRU ZATITAN EGINDAKO	
				ONBEHAR BIHURTU ----- IDI HITZ- ELKARKETAN									
Oso TXIKI ----- POLITIKAN ARITZEN DENA								GIDATZEN DUENA ----- OXIGENOA					
										MUTU ----- EGOKI			
HURBIL	NOREN ATZIZKIA ----- NAFARROAKO HERRIA									PLATINOA ----- NOIZNAHI			
			NAFARROAKO UDALERRIA							ASTIA ----- ZENITAREN AURKAKO PUNTUA			
BAKOITZA- REN JOKA- MOLDE ----- DOL-TALDEA													
		ENERGIA ----- ONTASUNEZ								HERRI JOKOA ----- PERTSO- NAIAREN IZENA			
ATOMO KARGATU ----- HURRENEZ HURRENEKO										EMAKUMEEI DEITZEKO HITZA ----- BAKARRA			SALDU ADITZAREN INFINITIBOA
				SUARI DARIONA ----- GOR		OIHAL FIN ETA GARDEN ----- PORTUA		LITROA ----- TIK-... ERLOJUA				SUFREA ----- SODIOA	
GIPUZKOAKO UDALERRIA ----- ERASO, OLDARTU													
				HALA ERE ----- ROENTGEN									
						GUATE- MALAKO MONETA- UNITATE NAGUSIA							

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		5				1		
	6			2				4
			5	1			2	7
	1		7	8			9	
	4						5	
	2			9	5		6	
8	5			7	9			
1				6			7	
		7				3		

5x5

ZECHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Edo.
2. Neska gurasoekiko.
3. Bost gehi bost.
4. Ur-korronte naturala.
5. Saski handi.

EBAZPENAK

5. ZARAN
4. IBAIA
3. HAMAR
2. ALABA
1. NAHIZ

SXS

6	9	7	3	1	2	5	1	3	4	8
1	3	2	8	8	9	6	7	5	7	5
8	5	4	3	7	9	2	1	6	9	6
7	4	8	1	3	6	7	5	2	2	2
5	1	6	7	8	2	4	9	3	3	3
4	8	6	1	5	1	3	6	2	7	7
3	6	9	6	1	9	6	1	9	6	3
2	7	5	6	4	8	1	3	9	9	2

I	L	V	Z	J	K	E	R	I	R	R	V	Z	V	I
V	A	N	I	B	A	V	A	L	O	Z	E	L	E	I
S	O	I	B	O	T	U	K	S	E	T	N	O	K	
	O	N		L		T	K		I	O	I			
V	K	O	J						E		B	A		
R	I	D	A	N					L	O	R			
V	T	E	B								R	U	H	
L	P		N	O						N	E			
T	I	S	I		V	O	K	I	T	I	T	O	P	
I	R	I	D	I	G	O	N	I	I	W	I	N		
U	T	R	V	H	E	B	N	O		H	V	X		
S		V	I	D	G	S				N				

Lars Wehring

PLATAFORMA
KAPITALISMOA
JOPUNTU



AKATS BAT MATRIX-EN

“Bada anekdota esanguratsu bat: bizikleta bidezko janari banatzaileak euren burua antolatzen hasi ziren, baina ez Whatsapp talde bat sortu zutelako, sistemaren akats bati esker baino. Kontua da *rider* horiek toki jakin batzuetan biltzen zirela, hurrengo eskaeraren zain, eta une horietan hasi ziren hainbat gauzez eztatbaidatzen, euren lan baldintzez, esaterako”.

“Anaia Handia ez da jada mehatxua, lagun fidagarria baino”

Fisikaria eta konputazio kuantikoan aditua da Lars Wehring koloniarra. Alemaniako Capulcu kolektiboko kide moduan kapitalismo korporatiboa garatzen ari den gizarte hiper-konektatuaren arriskuez ohartarazteko hitzaldia eman zuen maiatzean Bilboko Zirika gunean. Teknologiaren eta boterearen arteko loturak ikertu ditu, eta teknologikoki geroz eta bideratuagoak diren harremanen aurrean, harreman naturalak berreskuratzeke autodefentsa digitala egin behar dugula dio.



JABI ZABALA



IÑIGO AZKONA

Zer da Capulcu kolektiboa?

Izena Turkiako Erdogan presidentearen aurkako 2013ko protestetatik hartu genuen. Istanbulen parke baten defentsan ari ziren herritarrak guxtiesteko *capulcu* batzuk zirela esan zuen Erdoganek; alegia, arloteak, alferak. Manifestariak buelta eman zioten irainari, hitza euren buruak identifikatzeko harrotasunez hartuz.

Gu kaletik ezagutzen ginen, mugimendu sozialetatik eta hacker eszenatik. Eduard Snowden-en 2013ko salaketak izan ziren gure kolektiboaren abiapuntua. Autodefentsa digital moduko zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, pribatutasun eta anonimotasun guneak mantentzeko. Baina berehala ikusi genuen autodefentsa hori, guztiz beharrezkoa izan arren, ez zela nahikoa izango, diskurtso erradikala osatu behar genuela teknologiari berari buruz.

Teknologia bera neutrala da?

Aurrerabide teknologikoaren ahalmen askatzailean sinetsi eta aldi berean berau kapitalismotik askatzen

saiatzeko joera bat egon da ezkerraren baitan, teknologia neutrala dela iritzita. Beste iritziz batekoak gara gu, ikuspegi erradikal autonomotik iruditzen baitzaigu kritika gehienak ikuspegi sozialdemokratatik egiten direla. Marcusek zioenez, dominazioa ez da soilik teknologiaren erabilera, teknologia bera menderakuntza da. Dominazioaren zenbait helburu eta interes ez dira kanpotik ezarriak, teknologiaren beraren ezaugarri baino. Botereak teknologia darabil gizartea norabide batean eraldatzeko. Beraz, teknologia ez da tresna, sistema oso bat baizik, pentsatzeko era bat. Horregatik diogu teknologia biolentzia dela, gerra soziala. Muntaketa katea asmatu zuen Taylorrek langilearen autonomia borrokatzeke, eta antzeko prozesua gertatzen ari da egun.

Garai batean ikuspegi autonomoak asko erreparatzen zion botereak zelatatzen gaituelako ideari. Egun, paradigma erabat aldatu da: Anaia Handia zailagoa da identifikatzen eta gainera gu geu



"TEKNOLOGIA EZ DA TRESNA, SISTEMA OSO BAT BAIZIK, PENTSATZEKO ERA BAT. HORREGATIK DIOGU TEKNOLOGIA BIOLENTZIA DELA, GERRA SOZIALA".

ari gara berari informazioa ematen.

Bai, eta konplikatzen ari da. Botere zapaltzailearen 80ko urteetako ikuspegia sinplea zen, simpleegia. Orwellen irudiak ez du oso ondo islatzen egungo egoera, jada ez baita denok ikusten gaituen *panoptiko* beldurgarri bat, gehiago da normalizazio prozesuen nahasketa bat. Ez baduzu parte hartu nahi deskonektatu dezakezu, baina eguneroko komunikazio sozialetik at geratuko zara. Beraz, libreki sartzearen eta sartzera behartua izatearen arteko nahasketa da. Gure bizitzaren inguruko xehetasunak ematera gomitatuta gaude eta mekanismoak oso ondo funtzionatzen du, gure bizitzaren alderdi intimoenak ezagutzea ematen ditugu atsegin handiz. Boterearen egungo bertsioak oso gutxitan erabiltzen du lehenengo errepresio mekanismo zaharra. Anaia Handia ez da jada mehatxua, lagun fidagarria baino.

Deskonektaturik bizitzeko gero eta aukera gutxiago daude, beraz?

Txinan, adibidez, puntuazio sozialaren sistema integrala ezarri dute, internetarako ez ezik, *offline* bizitzaren alderdi

neurgarri guztietara ere zabaltzen dena. Esaterako, gidari moduan ondo portatzen bazara puntuak irabaziko dituzu, zaintza sistemak zure autoaren matrikula ezagutzen duelako. Puntu negatiboak jasoko dituzu arauak hautsiz gero. Egiten duzun guztiagatik puntu positiboak edo negatiboak jasotzen dituzu: erosteagatik, zerbitzuak ebaluatzeagatik... Gero, puntu horien arabera definitzen dira zure gaitasunak gizartean, baita egin dezakezuna ere: atzerrira joan, etxea alokatu... Zenbait gauza egin ahal izateko gutxieneko puntu kopurua eduki behar duzu. *Offline-online* desberdintzapena desagertzen doa.

Zer gertatzen da nahikoa puntu lortzen ez duen jendearekin?

Ez dira automatikoki disidentek, baina oso aukera murrizak dituzte gizartean. Txinan, ez duzu lortzen abiadura handiko trenerako edo nazioarteko hegaldietarako txartelik, ez duzu lortzen lanposturik, etxebizitzarik... Zure profilaren ebaluazioa ezinbesteko eskakizuna bihurtzen ari dira geroz eta oinarritzeko zerbitzu gehiagotan. Sistema integral hori Europa-

ra ekartzeko asmoa dute, eta orain harrokeriaz esan dezakezu ez zenukeela inoiz horrelako sistema bat onartuko, baina normalizazio prozesuaren parte bihurtuko dute, bortxa erabili gabe.

Amesgaizto distopiko baten deskribzioa dirudi horrek.

Bai, eta behetik hasten da zabaltzen. Esaterako, ikasleak, gurasoak, lagunak... Hainbat talde Whatsapp bidez antolatzen dira. Horri uko eginez gero, nola-bait aldentzen zara, zure burua egozten duzu talde sozialetatik. Ez da, beraz, Txinako kontua soilik, European ere oso erraz ezarriko dela dirudi. Horregatik erresistentzia askoz goizago hasi behar da, bizitza sozialaren neurtze eta bideratze prozesu zibernetiko hauek geldiarazi behar ditugu, aurre egin behar diogu bizitza sozialean dena neurgarria delako ideia horri. Neurketa horiek ebaluazioak bihurtuko dira eta ebaluazio horiek abiapuntua izango dira gure bizitza soziala aurreikusteko eta gure portaera disidentea zuzentzeko. Beraz, hasteko, gure neurketa prozesuari bera-ri egin behar diogu aurre. ●



Euskaldun Unibertsala saria emango diote udan autobusera igo aurretik desodorantea jarri duen herritarrari



Eusko Jaurlaritzak iragarri du aurten go Euskaldun Unibertsala saria Nekane Díaz de Amurrio gasteiztarrari eman- go diola, "herri honetan bizikidetzaren alde egindako lan handiaren" aitortza gisa. "Tira, nik desodorantea jartzen dut autobusera igo aurretik, besterik ez", esplikatu dio saridunak Beranduegiri, umiltasun osoz. Ibildide luzeko desodo- rante-erabiltzailea da Díaz de Amurrio. Zehaztu duenez, berak urte osoan era- biltzen du desodorantea, nahiz eta Jaur- laritzak udako hilabeteetan egin izana aitortu dion bereziki. "Sari hau apro- betxatu nahi dut jendeari esateko posi- ble dela. Ahalegin txiki bat nahikoa dela zure galtzarbeek dragoi baten ahoa bai- no usain txarragoa edukitzea saiheste- ko", adierazi du, saria eskuetan zuela. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Ringo, Paul, John
eta George



Gizon ospindurik ez



Euskal txiolandia arriskuan dagoen ala ez komentatzen hasita, eztabaida sutsua piztu da Twitterren

Patxi Huarte *Zaldieroa* komikigileak zabaldu zuen alerta joan den astean: Euskal Txioherria arriskuan dago azkenaldian, Twitterren aritzen diren euskaldunen arteko eztabaida gordinen ondorioz zenbait txiolari erreferentzialak sare hori uztea erabaki ondoren. Herri gisa egoera hori gainditzeko deia izan behar zuena debate mikatz bihurtu da ordea: @Sorgiñe92 Twitter kontuak "paleo-komunista

matxiruloak" jo ditu egoeraren erru- duntzat. @iraultza_sestao kontuak erantzun dio "feminista burgesek euskara kapitalismoari saldu diote eta horregatik gaude horrela". Ondotik, beste hainbat txiolari sartu dira debatean. Lerro hauek idaztean inork ez du lortu argitzea zergatik dagoen euskarazko Twitter komunitatea horrela, baina dagoeneko 617 *block* eta 2.974 *unfollow* egin dira. ●

EUSKAL TXIOLARI BAT AZKEN POLEMIKARI BEGIRA.

LIBURUA
SALGAI!
14€

BERDEA DA MORE BERRIA

**BIZKAIKO EGOITZETAKO
GREBALARIEN TESTIGANTZAK**

Onintza Irureta Azkune



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

 ARGIA



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!